

2019/05/10

KOD.: A117

LANERAKO PRESTAKUNTZA

***LEHEN ARIKETA.
BIGARREN PROBA***

***Denbora, gehienez: 120 minutu.
Galderak: 120.***

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredia.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1.00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagaratik

- 1.- Zein dira Europako Batzordeak 2020 Estrategian hazkunde integratzailearen esparruan ezarritako ekimen enblematikoetako bi?
 - a) Enplegu berrietarako agenda bat eta egiturazko langabeziaren kontrako plataforma bat.
 - b) Lanbide kualifikazio berrietarako eta enplegurako agenda bat eta pobreziaen aurkako europar plataforma bat.
 - c) Talde ahulenen integrazioarako plataforma bat eta erakundeen arteko koordinazioarako plataforma bat egiturazko funtsak kudeatzeko.
 - d) Enplegu berrietarako agenda bat eta gizarte- eta lurralde-asistentziarako plataforma bat.

- 2.- Europako egitura-funtsen eta inbertsio-funtsen helburua da EBren barruko herrialde ororen garapen ekonomikoa bultzatzea. Hauexek dira:
 - a) FSE, FEADER.
 - b) FSE, FEDER.
 - c) FSE, FEDER, Europako Kohesio Funtsa.
 - d) FEDER, FSE, FEADER, Europako Kohesio Funtsa, Europako Arrantza eta Itsas Funtsa.

- 3.- Zein dira FSEaren helburu zehatzak?
 - a) Enplegua sortzea, langileen lanbide-hobekuntza, eta lan-aukera bidezkoagoen bermea EBko herritar ororentzat.
 - b) Talde ahulenen gizarteratze eta laneratzea, Europa integratzailea eta sozialki inklusiboa sustatzearen.
 - c) Europar Batasuneko herrialde ahulena eta horien lan-merkatuak garatzea, herrialde horien maila ekonomikoa sustatzearen.
 - d) Langileen kualifikazioa handitzea, lan-merkatu lehiakor eta berritzailea sortzearen.

- 4.- FSEaren proiektuak askotarikoak dira hauei dagokienez:
 - a) Izaera, munta eta helburuak, askotariko talde eta pertsoneri zuzentzen baitzaizkie.
 - b) Izaera, munta eta helburuak, enpresei eta lan-merkatuan esanguratsuenak diren jarduera-sektoreei zuzentzen baitzaizkie.
 - c) Izaera, munta eta helburuak, Europar Batasuneko herrialde atzeratuenetako talde ahuleneri zuzentzen baitzaizkie.
 - d) Izaera, munta eta helburuak, biztanleria aktiboaren prestakuntzara zuzentzen baitira.

- 5.- FSEaren jarduera-eremuetako batek enplegua eta mugikortasuna barne hartzen ditu, eta alor hauek lantzen:
 - a) Pertsoneri laguntzea beren etorkizuneko behar profesionalak ezagutzen eta horiek planifikatzen, ikaskuntza iraunkorreko programen eta karrera profesionalaren bitartez.
 - b) Enpresei eta langileei sostengu ematea, lehiatzeko kualifikazio handiagoa eta lan egiteko modu berritzaileak eskuratzetik izan dezaten, haien errendimendua eta lehiakortasuna hobetuko baitituzte.
 - c) Sostengua ematea apendiz lanpostuei, enpresetako praktikei eta iraupen laburreko lanpostuei, askotan prestakuntza-ikastaroekin batera.
 - d) Lana eskuratzeko bide berriak, gazteentzako aukera gehiago, enpresentzako laguntzak eta ibilbide profesional hobeak.

- 6.- UAFSEak enpleguaren alorrean duen eskumena (adierazi aukera ZUZENA):
 - a) Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari lotutako erakundea da, Europako Gizarte Funtsetik datozen baliabideak Espainiako estatuan administratzeaz arduratzen dena.
 - b) Espainiako estatuan Europako Gizarte Funtsa administratzeko atala da, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioari atxikia.
 - c) Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioan kokatutako antolakundea da, enpleguaren alorreko estatuaren eskumena esleituta duena, Enpleguaren Estatu Idazkaritzaren bitartez.
 - d) Europako Estatu Idazkaritzari atxikitako Europar Batasuneko erakundea da, Espainiako estatuan Europako Gizarte Funtsa sustatzeaz arduratzen dena.

- 7- Urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 36. artikulua araberak, hauek dira enplegu-politika aktiboak:
- Honako xede hauek dituzten orientazio, bitartekotza, enplegu eta lan-eremuko enplegurako lanbide-prestakuntzako programa eta zerbitzuen multzoa da: langabeek beren edo inoren kontura lan-merkatuan enplegua aurkitzeko aukerak hobetzea, landunek enpleguari eutsi eta mailaz igotzea, eta enpresa-espirtua eta gizarte-ekonomia sustatzea.
 - Honako xede hauek dituzten langabeziarako prestazio ekonomikoen zerbitzuen eta orientazio, bitartekotza, enplegu eta lan-eremuko enplegurako lanbide-prestakuntzako programen multzoa da: langabeek beren edo inoren kontura lan-merkatuan enplegua aurkitzeko aukerak hobetzea, landunek enpleguari eutsi eta mailaz igotzea, eta enpresa-espirtua eta gizarte-ekonomia sustatzea.
 - Honako xede hauek dituzten orientazio, enplegu eta lan-eremuko enplegurako lanbide-prestakuntzako programa eta zerbitzuen multzoa da: langabeek beren edo inoren kontura lan-merkatuan enplegua aurkitzeko aukerak hobetzea, landunek enpleguari eutsi eta mailaz igotzea, eta enpresa-espirtua eta gizarte-ekonomia sustatzea.
 - Honako xede hauek dituzten orientazio, bitartekotza, enplegu eta lan-eremuko enplegurako lanbide-prestakuntzako programa eta zerbitzuen multzoa da: langabeek beren edo inoren kontura lan-merkatuan enplegua aurkitzeko aukerak hobetzea, landunek enpleguari eutsi eta mailaz igotzea, eta enpresa-espirtua sustatzea lan bitartekotza handitzearen.
- 8- Urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikulua araberak, atal hauetako zeinek aipatzen du enplegu-politikaren helburu orokorretako bat?
- Langabeziaren aurrean prebentziozko ikuspegia hartzea, batez ere denbora luzeko langabezia bada, eta langabeei banan-banako arreta eskaintzea, haien enplegagarritasuna hobetuko duten enplegu-politika aktiboetako jarduerak integratzen bitartez.
 - Enplegu-zerbitzu publikoaren eta enpresen lankidetzaren bultzatzea, enpresek politika aktiboen eta lanbide-kualifikazioaren arloan garatzen dituzten ekintzetan, langabeak lanean integratzeko, prestatzeko edo birkualifikatzeko eraginkorrak izan baitaitezke.
 - Prestakuntza bultzatzea langabeen zein landunen bizitza guztian, haien gaitasun profesionalak eta enplegu- eta prestakuntza-ibilbideak hobetzearen, baita haien garapen pertsonal eta profesionala ere.
 - Herritar ororen ikaskuntza iraunkorra bultzatzea, prestakuntza ireki, malgu, irisgarri eta egituratu baten bidez, bai nazioaren barruan bai Europako enplegatzaile zein langileentzat lan-merkatuaren gardentasuna ahalbidetzen duen prestakuntza-eskaintza baten bitartez.
- 9- Urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. artikulua honela definitzen du enplegu-politika:
- Enplegu-politika sustatu eta garatzeko behar diren egitura, neurri eta jardueren multzoa, Estatuan eta autonomia-erkidegoetan lan-merkatua integratu eta enplegu-mailak hobetzeko helburuarekin, aberastasuna sortu eta gizarte-kohesioa mantentzearen.
 - Estatuak eta autonomia-erkidegoek hartutako erabaki multzo bat da, programa eta neurri batzuk garatzea helburu duena, haien bidez enplegu osoa eta kalitatezkoa lortzeko, enplegu-eskaintzak eta -eskariak kuantitatiboki eta kualitatiboki egokitzeko, langabezia-egoerak gutxitzeko eta horietan behar den babes emateko.
 - Estatuak eta autonomia-erkidegoek hartutako erabaki multzo bat da, programa eta neurri batzuk garatzea helburu duena, haien bidez enplegu osoa eta kalitatezkoa lortzeko, baita bitartekotza ere, eta langabezia-egoeran dauden pertsonen laguntza ekonomikoak emateko.
 - Estatuak eta autonomia-erkidegoek bideratutako egitura, neurri eta ekintzen multzo bat da, haien bidez enplegu osoa lortzeko xedea duten programak eta neurriak garatzeko, enplegu-politika aktibo eta pasiboak aplikatuz.
- 10.- Baieztape hauetatik, zein da ZUZENA?
- Enplegu-agentziak erakunde publiko edo pribatuak dira, irabazi-asmoa dutenak edo irabazi-asmorik gabekoak, lan-bitartekotzako jarduerak egiten dituzten enplegu-zerbitzu publikoen laguntzaile moduan.
 - Berriz enplegatze enpresak enplegu-agentziak espezializatutakoak dira, enpresak berregituratzeko prozesuetan sobran dauden langileak berriz enplegatze jardueran espezializatutakoak, zehazki.
 - Enplegu-agentzien Gizarte Segurantzaren alorrean indarrean dagoen araudia bete beharko dute.
 - Aldi baterako laneko enpresek ezin izango dute enplegu-agentzia gisa jardun, ez baitaizkio lege honi eta berak garatzen duten xedapenei egokitzen.

11.- Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Enplegua Aktibatzekeo Espainiako Estrategiak 6 ardatzen inguruan egituratzen ditu enplegua aktibatzekeo politikak.
- b) Enplegua Aktibatzekeo Espainiako Estrategia urte anitzekoa izango da.
- c) Enplegu-politikako urteko planetan, Enplegua Aktibatzekeo Espainiako Estrategiaren urte bakoitzerako helburuak zehaztuko dira; helburu horiek Estatu osoan betetzekeoak izango dira, bai eta autonomia-erkidego bakoitzean ere. Orobat, aurreko ekitaldiko emaitzak zehaztuko dira, urtero betetze-maila zein izan den jakiteko eta ebaluatzekeo.
- d) Enplegu-politikako urteko planak Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak egingo ditu, autonomia-erkidegoek eta Estatuako Enplegu Zerbitzu Publikoak Enpleguaren eta Lan Gaien Sektoreko Konferentzian egindako aurreikuspenak kontuan izanik; Enplegu Sistema Nazionalaren Kontseilu Nagusiak —8.b) artikuluan arautua— plan horien gaineko txostena egin beharko du, eta Ministro Kontseiluan onartuko dira.

12.- Aukeratu erantzun ZUZENA:

- a) Enplegurako Espainiako Estrategiaren helburuak honela banatzen dira: 5 helburu gako, 6 helburu estrategiko, eta 7 ardatzetan bildutako egiturazko helburuak.
- b) Enplegurako Espainiako Estrategiaren helburuak honela banatzen dira: 4 helburu gako, 5 helburu estrategiko, eta 6 ardatzetan bildutako egiturazko helburuak.
- c) Enplegurako Espainiako Estrategiaren helburuak honela banatzen dira: 4 helburu gako, 6 helburu estrategiko, eta 7 ardatzetan bildutako egiturazko helburuak.
- d) Enplegurako Espainiako Estrategiaren helburuak honela banatzen dira: 5 helburu gako, 4 helburu estrategiko, eta 5 ardatzetan bildutako egiturazko helburuak.

13- Egiturazko helburuen barruko 2. ardatzak —prestakuntzari buruzkoa— 6 helburu instrumental ezartzen ditu. Horietako bat da enpresetan prestakuntza sustatzea, 30/2015 Legean eta hura garatzeko arauetan ezarritako tresnen bitartez. Arau hauetako zeinek garatzen du aipatutako legea? (adierazi erantzun ZUZENA)

- a) Urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuak.
- b) Martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuak.
- c) Uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretuak.
- d) Abenduaren 15eko 1033/2017 Errege Dekretuak.

14.- Politika aktiboak emaitzen arabera planifikatu eta ebaluatzea da Enplegurako Espainiako Estrategiaren lehenetsuneko jarduera-ildoetako bat. Horrekin lotuta, bi jarraipen eta ebaluazio maila ezartzen dira. Lehenengoan 4 ebaluazio egingo dira. Horietako bat enplegu zerbitzu bakoitzak egiten duena da, aldi berean Planean jasotako helburu gako, estrategiko eta egiturazkoen betetze-maila ebaluatzen delarik. Hauxe da erabilitako metodologia:

- a) PAPE.
- b) EVADES.
- c) PEL.
- d) ISO 9001.

15.- Enplegua Aktibatzekeo Espainiako Estrategiari jarraituz, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Lanbide Behatokiak aldiari behin sakon aztertzen du azterlana egiten den unean zein produkzio-sektore dagoen ondo kokatuta lan-merkatuan lan eta enplegu adierazlearen arabera. Azterlan horien helburuak direla eta, adieraz ezazu aukera ZUZENA:

- a) Azterlan horiek ahalbidetzen dute identifikatzea enplegu behar handiagoak izango dituzten lanbide edo lanpostuak; aldatzen ari diren eta gaitasun berriak behar dituzten profil profesionalak; enpresek eskatzen duten espezializazio edo polibalentzia maila eta horren ondorioz sortzen diren prestakuntza beharrak. Orobat ahalbidetzen dute ebaluatzea oraingo lanbide heziketako eskaintza nahikoa den jarraibide berrien arabera sortzen diren lanpostuen prestakuntza beharrak asetzeko.
- b) Azterlan horiek ahalbidetzen dute ezagutzea sektoreen egoera, joera eta eboluzioa; enplegua sortzeko dituzten aukerak; enplegurako aukera onenak dituzten jardura ekonomiko eta lanbideak; enpresek gehien eskatzen dituzten gaitasunak, eta jardura berriek eta aldaketa teknologiko azkar eta etengabeek sor ditzaketen prestakuntza beharrak.
- c) Azterlan horiek ahalbidetzen dute ezagutzea zein jardura ekonomikok sortzen duten kuantitatiboki eta kualitatiboki enplegu-tasa handiagoak, lanbideen katalogoan oinarrituta; zein profil profesional eskatzen duten enpresek, eta zein prestakuntza behar sortzen den horren ondorioz. Orobat ebaluatzen dute lanerako prestakuntzak emaitza onak lortu dituen enplegarritasunari dagokionez, eta zein behar dagoen, jarraibide berrien arabera.
- d) Azterlan instrumentalak dira, prestakuntza baliabideen kudeaketan eraginkortasun, efizientzia eta gardentasun handiagoa lortzea ahalbidetzen dutenak. Enpresen behar profesionali erantzun hobea emateari ematen zaio garrantzia; hartara, enpleguarekin lotutako funts publikoen kudeaketaren ahuleziak eta eraginkortasun ezak eragozten dira, eta enplegu sisteman parte hartzen duten administrazio publikoetako aktore guztiak koordinatzea ahalbidetzen da, enplegu osoa lortzeko xedez.

16- Abenduaren 15eko 1032/2017 Errege Dekretuaren arabera, batez ere kontsumoa, kanpo-merkataritza, makineria eta ekipoetan egindako inbertsioa eta turismoa ari dira sustatzen ekonomiaren hazkundera. Adierazi aukera ZUZENA:

- a) Sektoreka, bereziki ekipamendu-ondasunen alorrean aurreikusten dira hazkundera. Horien artean nabarmentzen da makina eta ekipoen fabrikazioaren pisua eta eraikuntza metalikoekin lotutako lanbideen suspertzea; beste adar batzuetan ere hazkundera gertatuko dela aurreikusten da: material eta ekipo elektrikoak; informatika, elektronika eta optika produktuak, eta makina eta ekipoen konponketa.
- b) Ekonomia garatuetan antzematen ari den joeraren arabera, enpleguaren egitura eredu orekatu baterantz doa, zeinean berdintasuneko banaketa ikusten baita batetik kualifikazio handiko profesional eta teknikarientzako enpleguen eta salmenta eta zerbitzuetako enpleguen eta bestetik oinarritzako lanbideen artean.
- c) Espainian joera positiboa erakusten ari diren lanbideak batez ere jatetxe zerbitzuen alorreko langile-taldeetan metatzen dira: zerbitzariak, sukaldariak, sommelierak, gozogileak. Horiek etorkizun ona duten lanbideetako enpleguaren hiru laurden dira.
- d) Kualifikazio handiagoko taldeetan, enpleguari dagokionez egoera onenak dituzten lanbideak osasunarekin lotutakoak dira (medikuak, fisioterapeutak, odontologoak), baita irakaskuntza, ingeniariaritza eta IKTen alorrekin lotutakoak ere. Adituen iritziz, azken horien artean etorkizun ona dute lanbide hauek: sareen teknikari eta analista, web-teknikariak, datu-baseen diseinatzaile eta administrazioaileak, eta elektrizitate, telekomunikazio, industria eta agronomia ingeniari teknikoak zein ingeniariak.

17.- Enplegua Aktibatzekeo Espainiako Estrategiaren arabera, enplegu zerbitzu publikoek 2017ko Enpleguaren Urteko Planaren barruan garatzen dituzten zerbitzu eta programek 2017ko apirilaren 11ko Enpleguaren eta Lan Gaien Sektoreko Konferentzian erabakitako helburu estrategikoak betetzera bideratu behar dira. Horietakoren bat falta da zerrendan?

- Ez ikasten ez lan egiten ez duten 30 urtetik beherako gazteen enplegarritasuna eta laneratzea hobetzea, Gazte Bermea sustatuz eta EBrekin hartutako konpromisoak betez.
- Luzaroko langabeziak eragindako beste talde batzuen enplegarritasuna hobetzea, bereziki 45 urte gorakoena.
- Enplegurako lanbide heziketaren kalitatea hobetzea, bereziki prestakuntza dualaren alorrean, langileen laneratzean eta garapen profesionalaren hobekuntzan dituen emaitzei bereziki erreparatuz.
- Langabezia-prestazioen onuradunen aktibazioa sustatzea.

- a) Ez.
- b) Bai, emakumeentzat enplegua eskuratzeko aukera-berdintasuna bultzatzea.
- c) Bai, ekintzailatza sustatzea, langabeak aktibatzearen eta enplegua berreskuratzearen zati banaezina baita.
- d) Bai, enpresekiko harremana sustatzea, lan bitartekotza handitzeko xedez.

18.- 2017rako Enplegu Politika Aktiboen Urteko Plana onesten duen 2017ko abenduaren 18ko Ebazpenaren arabera, programa bat da:

- a) Kolektibo, sektore edo lurralde-eremu bati zuzendutako jardueren multzo koordinatua, aldez aurretik zehaztutako denbora epe batean egitekoa, tresna juridiko edo tekniko zehatz baten bidez (dirulaguntza ematea, administrazio-kontratazioa, hitzarmena izenpetzea, zuzeneko kudeaketa, etab.) planifikatu eta kudeatutakoa, kostu identifikatu edo identifikagarria duena, aldez aurretik ezarritako enplegu-batzuk betetzera bideratua.
- b) Kolektibo, sektore edo lurralde-eremu bati zuzendutako jardueren multzo koordinatua, aldez aurretik zehaztutako denbora epe batean egitekoa, tresna juridiko edo tekniko zehatz baten bidez (hobaria, dirulaguntza ematea, administrazio-kontratazioa, hitzarmena izenpetzea, zuzeneko kudeaketa, etab.) planifikatu eta kudeatutakoa, kostu identifikatu edo identifikagarria duena, aldez aurretik ezarritako enplegu-helburu batzuk betetzera bideratua.
- c) Kolektibo, sektore edo lurralde-eremu bati zuzendutako jardueren multzo koordinatua, 2017an zehar egitekoa, erkidego edo estatu izaerako oinarri arautzaile edo tekniko batzuen bidez (dirulaguntza ematea, administrazio-kontratazioa, hitzarmena izenpetzea, zuzeneko kudeaketa, etab.) planifikatu eta kudeatutakoa, kostu identifikatu edo identifikagarria duena, enplegarritasuna handitzera bideratua.
- d) Erkidego izaerako jardueren multzoa, tokiko sektore edo eremuekin lotutako hainbat helburu lortzera bideratua, aldez aurretik zehaztutako denbora epe batean egitekoa, tresna juridiko edo tekniko zehatz baten bidez (hobaria, dirulaguntza ematea, administrazio-kontratazioa, hitzarmena izenpetzea, zuzeneko kudeaketa, etab.) planifikatu eta kudeatutakoa, kostu identifikatu edo identifikagarria duena, aldez aurretik ezarritako enplegu-helburuak betetzera bideratua.

19.- Zein arauk arautzen ditu enplegu-agentziak?

- a) Abenduaren 30eko 1687/2016 Errege Dekretuak.
- b) Abenduaren 30eko 1796/2016 Errege Dekretuak.
- c) Abenduaren 30eko 1786/2016 Errege Dekretuak.
- d) Abenduaren 30eko 1976/2016 Errege Dekretuak.

20.- Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 Plan Estrategikoaren arabera, laneratzeko pizgarriak...

- a) Jarduera-ildo bat dira.
- b) Helburu estrategiko bat dira.
- c) Jarduera-ardatz bat dira.
- d) Esparru operatibo bat dira.

21.- Ondoren aipatzen diren aukeretatik, 3 helburu estrategikotzat jotzen ditu Eusko Jaurlaritzak. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Honako hauek baliatu: garapen turistiko jasangarriak enplegua sortzeko duen gaitasuna, tokiko merkataritzaren finkapena, sektore primarioaren modernizazioa eta gizarte-ekonomiaren eta sektore publikoaren garapena.
- b) Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ekarpena hobetu euskal enplegu-politikaren tresna operatibo nagusi gisa, pertsona eta enpresentzako zerbitzu integratuagoak eskaini ditzen, "ibilbide" kontzeptua bereziki azpimarratuz.
- c) Laneratzeari sustatu tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez.
- d) Etxebizitzak eta tresneria publikoa birgaitzeko "Renove" programen aktibazioa lortu, enplegua sortzeko jarduerak trinkoak direla egiaztatzea baita.

22.- 5. esparru operatiboa laneratzeko pizgarriei buruzkoa da. Horren barruko 5.1 jarduera-ildoak (tokiko eta eskualdeko enplegu-planak) helburu hau du:

- a) Laguntza ematea belaunaldi-aldaketak edo erretiroak, baja boluntarioak edo berritzeak direla eta hutsik gelditzen diren lanpostuak bete daitezten lurraldeko zein herrietako enpresetan, plangintza eta kudeaketa egokia eginez, erakunde publiko eta pribatueta plantillen berrikuntzek sortzen dituzten enplegu-aukera horiei etekina atera ahal izateko.
- b) Laguntza ematea lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan eragina duten enpleguak sortzera zuzendutako proiektuei, udalekin, mankomunitateekin eta tokiko eta eskualdeko garapen agentziekin elkarlanean, eta langabetuen enplegarritasuna hobetzea, egoera txarrean dauden taldeak lan-merkatuan sartzeari arreta berezia eskainita.
- c) Laguntza ematea lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan eragiten duten enplegua sortzeari zuzendutako proiektuei, lan-munduan txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna areagotuz haien gaitasunak eta ahalmen pertsonalak eta motibazioa indartzeko balioko duen aldi baterako lan-esperientzia baten bitartez.
- d) Laguntza ematea bereziki lurralde batean gizartetik baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonen, kontratazioarako pizgarrien bitartez, ohiko lan-merkatuan lanpostu bat gainerako taldeen baldintza berberetan eskuratzeko dituzten aukerak handitu daitezten, 45 urtetik gorakoei, epe luzeko langabetuei eta mendeko pertsonen lehentasuna emanez.

23.- Araututako hezkuntzaren ondoren gazteen lan munduan sartzearen jarraipen-sistemak eta azterketak sendotzeko berariazko helburua jarduera-ildo honen barruan dago:

- a) 3.1 jarduera-ildoak: hezkuntzatik lanera igarotzea.
- b) 3.9 jarduera-ildoak: gazteen enplegurako prestakuntza.
- c) 5.3 jarduera-ildoak: bazterkeria arriskuan dauden pertsonen gaikuntza eta laneratzera/gizarteratzea.
- d) 5.1 jarduera-ildoak: tokiko eta eskualdeko enplegu planak.

24- Langabeen prestakuntzari buruzko jarduera-ildoak (4.1 jarduera-ildoak) helburu hau du:

- a) Lan-merkatuak eskatzen dituen prestaketa eta gaitasunekin lerrokatutako prestakuntza-jarduerak garatzea, langabetuen prestakuntza, birziklatzea eta bigarren aukera erraztera zuzendutakoak.
- b) Prestakuntzaren edo lan-esperientziaren bidez eskuratzeko gaitasunen akreditazioa sustatzea, enplegarritasuna eta nazioen arteko mugikortasuna bultzatzearen.
- c) Prestakuntza dualaren eredu baliatzea, langileak enpresetan txertatzen lagunduz, eta 30 urtetik gorako pertsonen lehentasuna emanez.
- d) Enplegurako prestakuntzaren jardueren barruan gaitasun gakoak eskuratzeko prozesuak indartzea, apustu berezia eginez hizkuntza gaitasunen eta matematikarako gaitasunak garatzearen alde.

25- Lehen Aukera programaren helburua da lan-esperientzia eskaintzea...

- a) Tokiko eta eskualdeko enplegu planetan parte hartzen duten gazteei.
- b) Akreditatu daitekeen langabetuentzako prestakuntzan parte hartu duten kualifikazio handiko gazteei.
- c) Kualifikazio baxua ala goi mailako kualifikazioa izan, lan-esperientzia txikia duten gazteei.
- d) Kualifikazio txikia duten eta gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden gazteei.

26.- Prestakuntza-ekintzak haien ondoren enpresek kontratatzearekin nahastea langabetuak lan-merkatuan txertatzea errazteko formula baliotsua da. Horrelako ekintzen barruan sartzen dira...

- a) Enplegurako gaitasun pertsonalak lantzeko zeharkako prestakuntza, gazteak enpresan txertatzera zuzendua, maila teknologiko handiko lan-profilen behar zehatzak izaten baitituzte, eta trebatze osagarri espezifikoak.
- b) Gazteak enpresan txertatzeko prestakuntza espezifikoak, maila teknologiko handiko lan-profilen behar zehatzak izaten baitituzte, eta trebatze osagarri espezifikoak.
- c) Aldez aurretik lan-esperientzia duten langileak enpresetan sartzeko zeharkako prestakuntza, haien lan-profilen behar zehatzak izaten baitituzte.
- d) Halako ekintzek langileak enpresetan sartzeko prestakuntza espezifikoak eskaintzen dute, lan-merkatuan ezin aurki daitezkeen lan-profil zehatzen beharrei erantzuteko, eta trebatze osagarri espezifikoak behar dutelako.

27.- Adieraz ezazu aukera ZUZENA ondoko paragrafoa osatzeko, zeina 4.3 jarduera-ildoari (landunentzako prestakuntza) buruzkoa baita:

"..... premiazko tresna da, eszenatoki berri horretan bizi osoan ikasten jarraitu beharko baita pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, batez ere talde kaltetuenen kasuan".

- a) Lan-esperientziaren aitortpena.
- b) Etengabeko prestakuntza.
- c) Gaitasunaren akreditazioa.
- d) Ikasketa ez-formalen aitortpena.

28.- Adierazi aukera ZUZENA lan aktibazioko neurrien hartzaileei dagokienez:

- a) Hauskortasun handiko taldeak eta lan-munduan txertatzeko arazo gehien dituztenak, urtebetetik gora langabezia daudenak, garapen pertsonala eta lan-garapena bermatuko duen lan-aukera bat behar dutenak, eta bereziki gizarte-prestazioen onuradunak, 25 urtetik beherako gazteak, 45 urtetik gorakoak, eta ezintasunen bat duten pertsonak.
- b) Hauskortasun handiko taldeak eta lan-munduan txertatzeko arazo gehien dituztenak, hala nola diru-sarreraren bermerako errentaren onuradunak, epe luzeko langabetuak, 45 urtetik gorako langabetuak, gazteak, ezintasunen bat duten pertsonak, etorkinak, eta egoera irregularrean bizi diren pertsonak.
- c) Hauskortasun handiko taldeak eta enplegua eskuratzeko arazo gehien dituztenak, hala nola diru-sarreraren bermerako errentaren onuradunak, epe luzeko langabetuak, 45 urtetik gorako langabetuak, gazteak, ezintasunen bat duten pertsonak, eta egoitza-baimena duten atzeritarrak.
- d) Hauskortasun handiko taldeak eta lan-munduan txertatzeko arazo gehien dituztenak, hala nola diru-sarreraren bermerako errentaren onuradunak, eteteko enplegu-erregulazioko espediente batek eragindako pertsonak, 45 urtetik gorako langabetuak, gazteak, ezintasunen bat duten pertsonak, eta egoitza-baimena duten atzeritarrak.

29.- Bazterkeria arriskuan dauden pertsonen gaikuntza eta laneratze/gizarteratzeari buruzko jarduera-ildoak (5.3 jarduera-ildoak) enpleguko zentro berezietan eta lan-munduan txertatzeko enpresei laguntzea proposatzen du. Horien egitekoa izango da:

- a) Ezintasunen bat duten pertsonen eta desabantaila edo bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonen orientazioan eta lan-munduan txertatzeko laguntzan espezializatutako zerbitzuak garatzea, lan-orientazio ereduaren esparru komunean.
- b) Ezintasunen bat duten pertsonak enpresetako lanean txertatzen laguntzea haien baldintza fisiko, psikiko edo adimenekoei egokitutako lanpostuak haien eskura jartzeko sostengu-programen bidez, edo sostengua eskaintzen duten enplegu-ekintzen bidez, horrelako pertsonen lagunduko dieten profesional espezializatuak jarritz, enpresetan bete behar dituzten egitekoak errazteko.
- c) Ezintasunen bat duten pertsonak babestutako lanetik lan-merkatu arruntera igarotzen laguntzeko beste irudi batzuk sustatzea, lantokiak esaterako, eta halako proiektu pilotuei laguntzea baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsona-taldeen enplegu-aukera errazteko beste modu batzuk garatzeko.
- d) Ekoizpen jarduera berriak identifikatzea, non enpresekin lankidetzak sustatu ahal diren, ezintasunen bat duten pertsonak eta desabantaila edo bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonak lan arruntetan txertatu ahal izateko.

30.- Zein da euskal enplegu politika bultzatzeko behar den adostasuna lortzea ahalbidetuko duen tresna?

- a) Gizarte Elkarrizketarako Mahaia.
- b) Enpleguaren eta Gizarte Politiken Sailaren, Hezkuntza Sailaren eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren arteko koordinazio batzordea.
- c) Enplegu Foroa.
- d) Lanbide Prestakuntzarako Euskal Kontseilua.

31.- Enpresen gizarte erantzukizuna honela definitzen da: legezko betebeharrak betetzeaz haratago, enpresek beren ingurunearen ekonomia, gizarte eta ingurumena garatzen laguntzea aktiboki eta borondatez, eta horren ondorioz... (adierazi aukera ZUZENA):

- a) Enpresen gizarte erantzukizunaren sustapenaren koordinazioa erraztea foru aldundiekin eta tokiko erakundeekin batera, enpresen gizarte erantzukizuneko euskal erakundeen arteko foroa sortuz.
- b) Hainbat arlotan jardunbide egokiak garatzea, besteak beste, tokiko enplegua, langileen parte hartzea enpresetan eta dibertsitatearen ikuspegia sartzea.
- c) Enpresetako prozesuen kudeaketa eta produktibitatea hobetzea.
- d) Jardunaren eta lan harremanak ebaluatzen jarduerak garatzea.

32.- Urriaren 13ko 3/2011 Legearen 1. artikulua araberaz, zer da Lanbide-EEZ?

- a) Kudeaketarako sozietate publiko bat.
- b) Zuzenbide pribatuko ente publiko bat.
- c) Administrazio izaerako erakunde autonomo bat.
- d) Fundazio publiko bat.

33.- Zein da Lanbide-EEZren helburua urriaren 13ko 3/2011 Legearen 2. artikulua araberaz?

- a) Laguntza egonkorra eta kalitatezkoa den enplegua sortzen, eta laguntza lan-merkatua osa dadin eraginkortasunez langabeen enplegarritasuna bermatzeko, eta enpresen eskaerei egokitutako langileen beharrei erantzuteko, eta laguntza enpresen produktibitateari, agintzen zaizkion enplegu-politikak eta lan-legedia egikaritzeko politikak kudeatuz.
- b) Laguntza egonkorra eta kalitatezkoa den enplegua sortzen, eta laguntza lan-merkatua osa dadin eraginkortasunez langabeen enplegarritasuna bermatzeko, eta enpresen eskaerei egokitutako langileen beharrei erantzuteko, eta laguntza enpresen produktibitateari, agintzen zaizkion enplegu-politika aktiboak kudeatuz eta erkidegoko lan-legedia egikaritzuz.
- c) Laguntza egonkorra eta kalitatezkoa den enplegua izateko eskubidea erabat gara dadin, eta laguntza lan-merkatua osa dadin eraginkortasunez langileen enplegarritasuna bermatzeko, eta enpresen eskaerei egokitutako langileen beharrei erantzuteko, baita kohesio soziala eta lurralde-kohesioa laguntzeko ere, agintzen zaizkion enplegu-politikak eta lan-legedia egikaritzeko politikak kudeatuz.
- d) Laguntza lan-merkatua guztiz garatzen, egonkorra eta kalitatezkoa den enplegua sortuz, eta ekonomia eraginkortasunez bultzatuz, langileen enplegarritasuna bermatzeko, eta enpresen eskaerei egokitutako langileen beharrei erantzuteko, baita kohesio soziala eta lurralde-kohesioa laguntzeko ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketaren bidez.

34.- Adieraz ezazu aukera hauetako zein den benetan Lanbideren eginkizun orokorretako bat:

- a) Administrazio publikoen politikak behatzea enpleguaren, prestakuntzaren, diru-sarreraren bermearen eta gizarte-inklusioaren alorretan, europar strategiari arreta berezia emanez eta nazioartean sektoreak dituen joerak aztertuz.
- b) Tokiko erakundearen prestakuntza-planetan parte hartzea.
- c) Sailaren ekitaldi publikoen eta kanpoko jardueren protokoloa eta antolakuntza, baita hark sustatutako biltzar, mintegi, jardunaldi eta hitzaldiena ere.
- d) Gazteak gizartean egoki txertatzera bideratutako politikak sustatzea, beste erakunde publiko eta gizarte-eragile batzuekin batera.

35.- Lanbideren estatutuak onartzen dituen 82/2012 Dekretuaren 6. artikuluan Administrazio Kontseiluaren osara zehazten da. Kideei dagokienez, aukera hauetako bat OKERRA da:

- a) Lehendakaria, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra.
- b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.
- c) Eusko Jaurlaritzak izendatu, eta, hala badagokio, kargutik kenduko dituen bi kide, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.
- d) Bost kide, Euskadin ordezkari handiena duten gizarte-eragileen ordezkari gisa.

36.- Zein da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren eginkizunetako bat?

- a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari berari dagozkion gaiei buruzko kontratuak izenpetzea, eta herri-administrazioen kontratuei buruzko legeriak kontratazio-organoei esleitzen dizkien eskumen eta ahalmenak baliatzea.
- b) Administrazio Kontseiluaren bileretarako deia egitea eta bilera horietan buru izatea.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kudeaketa kontrolatu eta ebaluatzea, eta, horretarako, haren helburuak hobeto betetzeko beharrezko irizitako neurriak proposatzea.
- d) Enplegu eta prestakuntza arloko laguntza-deialdiak egitea.

37.- FutureLan-ek bi motatako informazioa barne hartzen du. Lehen motakoa informazio kuantitatiboa da, batetik enpresetako enplegu-eskariaren proiektzioak —sektore ekonomikoetan eta talde profesionaletan sailkatuta— eta langileen eskaintzaren proiektzioak eskaintzen dituen, eta bestetik, eskaintzaren eta eskaeraren arteko oreka/desoreka egoerak. Bigarren informazio motari dagokionez, zein da aukera ZUZENA?

- a) Informazio kualitatiboa, CEDEFOParen enpleguaren eboluzioari buruz.
- b) Informazio kualitatiboa, okupazio-joerei eta lanbide-prestakuntzaren aldatzeki buruz.
- c) Informazio kualitatiboa, okupazioetako joerei eta gaitasun-aldaketari buruz.
- d) Informazio kualitatiboa lan-merkatuari buruz, hainbat sektore eta antolakundetako adituek emana.

- 38.- Honen bidez kalkulatzen dira 2015 eta 2030 artean sortzekoak diren enplegu-aukera garbiak sektoreko:
- Enpleguen eboluzioaren prospektiba eta Euskadiko enpresek etorkizunean egitekoak diren kontratuen prospektibak.
 - Gaur egun lan-merkatuan lanean ari diren pertsonen erretiroa dela eta sortuko diren ordezteko beharrak eta garapen ekonomikoaren prospektibak.
 - Lanbideen eboluzio teknologikoko beharrak eta enpresek iragarritako gaitasun-defizita.
 - Europako Batzordeari, SEPEari eta EAeko enpresa antolakundeei jarraituz enplegu beharrez egindako txostenak.
- 39.- Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen 82/2016 Dekretuaren atarikoan, nahitaez bete beharreko zenbait araudi aipatzen dira oinarri gisa. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:
- 34/2008 Errege Dekretua.
 - 30/2015 Legea.
 - 395/2007 Dekretua.
 - 1/2013 Legea.
- 40.- Euskadin Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duten printzipioei dagokienez, adieraz ezazu aukera OKERRA:
- Ekoiuzpen-ereduaren eskakizun eta aldaketetara aurreratzea, eta prestakuntza-eskaintza azkar eta malgutasunez egokitzea Euskadin aldatzen ari diren beharriaz, bai eta enpresen beharriaz zehaztuta ere.
 - Plangintza estrategikoari bide emango dion eta prestakuntza-baliabideetan inbertsioak egitea sustatuko duen egonkortasuna, segurtasuna eta ziurtasuna.
 - Prestakuntzaren eragina eta etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa neurtzea informazio-sistemak sendotuz, jarraipena eta kontrola eginez eta prestakuntza-prozesuko etapa guztietan etengabeko ebaluazioa eginez.
 - Produktzioaren teknologia berriak prestakuntza-prozesuetan erabiltzea sustatzea.
- 41.- Nola definitzen du 82/2016 Dekretuaren 2. artikulua Enplegurako Lanbide Heziketa?
- Lanbide Heziketaren sistemetako bat da, enpresen artean eta langileen artean (langabeak nahiz lanean ari direnak) lehiakortasun- eta kualifikazio-beharrizanei erantzuteko prestakuntza bultzatzea eta zabaltzea xede duten tresna eta ekintzez osatua. Prestakuntza horrek, halaber, gizartea kohesionatzen eta ekonomia garatzen lagunduko du, ezagutzan oinarritutako ekonomiaren esparruan.
 - Lanbide Heziketaren azpisistemetako bat da, eta Hezkuntzarekin batera, pertsonak lanerako prestatu eta gaitzen du, eta haien gaitasunak eta ezagutzak eguneratzen bizitza profesionalean zehar, enpresen artean eta langileen artean (langabeak nahiz lanean ari direnak) lehiakortasun- eta kualifikazio-beharrizanei erantzuteko prestakuntza bultzatzea eta zabaltzea xede duten tresna eta ekintzez osatua.
 - Bizitza osoan zehar ikasteko euskal sistemaren azpisistemetako bat da, pertsonen etengabeko prestakuntzarako eta kualifikaziorako beharrei eraginkortasunez erantzuten diona, haien garapen pertsonal, sozial eta profesionalari laguntzeko xedez, baita Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialari laguntzeko ere, behar diren mekanismoak ezarri egoki diren planak eta programak programatu, koordinatu, garatu eta ebaluatzeko.
 - Langileek lan-esparruan dituzten prestakuntza-beharrei erantzuten dien sistemetako bat da, langileen kualifikazioa lortzera bideratutako ekintza eta neurriak artikulatzen dituena, haien garapen pertsonal, sozial eta profesionalari laguntzeko xedez, eta Lanbide Heziketaren eraginkortasunari laguntzen diona, informazioaren, emaitzen ebaluazio eta kontrolaren eta erakundearen parte hartzearen bidez.
- 42.- Zein sistemaren bidez finantzatuko da enpresek programatutako prestakuntza, 82/2016 Dekretuaren 21.4 artikulua arabera?
- Kudeatzeko gomendioak.
 - Kontratuak.
 - Dirulaguntzak.
 - Hobariak.

43.- 82/2016 Dekretuaren IV. kapituluak enplegurako prestakuntzaren alorreko ekimen multzo bat definitzen du. Adierazi aukera ZUZENA:

- a) Enpresek beren langileentzat programatutako prestakuntza, langile langabeentzako prestakuntza-eskaintza, kontratazio-konpromisoak, lanez kanpoko praktikak, langile landunentzako prestakuntza-eskaintza, laneratzeko eta gizarteratzeko programa espezifikoak eta proiektuak, enpleguarekin txandakatutako prestakuntza.
- b) Enpresek beren langileentzat programatutako prestakuntza, langile langabeentzako prestakuntza-eskaintza, langile landunentzako prestakuntza-eskaintza, laneratzeko eta gizarteratzeko programa espezifikoak eta proiektuak, enpleguarekin txandakatutako prestakuntza.
- c) Langile langabeentzako prestakuntza-eskaintza; kontratazio-konpromisoak; lanez kanpoko praktikak; langile landunentzako prestakuntza-eskaintza; ekimen pribatuko programa espezifikoak, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratutakoak; enpleguarekin txandakatutako prestakuntza.
- d) Langile langabeentzako prestakuntza-eskaintza, kontratazio-konpromisoak, lanez kanpoko praktikak, langile landunentzako prestakuntza-eskaintza, laneratzeko eta gizarteratzeko programa espezifikoak eta proiektuak, enpleguarekin txandakatutako prestakuntza.

44.- Lanbide-EEZren web-orrian, prestakuntza espezialitateen multzo bat eskaintzen da, bai 2018-2020 aldian langile landunentzat programatu daitezkeen prestakuntza espezialitateei buruzko dokumentazio osagarrian bai langabeentzako prestakuntza espezialitateen diagnostikoan. Adieraz ezazu espezialitate multzo horren ezaugarri FALTSUA:

- a) Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren barrukoak dira.
- b) Akreditagarriak eta inskribatuak izan daitezke.
- c) 26 lanbide-familiatan biltzen dira.
- d) Espezialitateen Estatuko Katalogoan erregistratuta daude.

45.- Zein lanbide familiarren barruan daude kontsumitzailearentzako zerbitzuekin lotutako espezialitateak?

- a) Osasuna.
- b) Gizarte eta kultura zerbitzuak eta komunitatearentzako zerbitzuak.
- c) Gizarte arreta.
- d) Administrazioa eta kudeaketa.

46.- Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko bideetako bat da:

- a) Ikaskuntza ez-formalen aitorten ofiziala, lanbide-gaitasunak aitortzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesu baten bidez.
- b) Prestakuntza eta lan-esperientziaren aitortpena, Profesionaltasun Ziurtagiriaren Euskal Erregistroarena.
- c) LOGSE modulu profesionalen baliozkotzea, Hezkuntza Sailak egina.
- d) Lan-esperientziaren eta ikaskuntza ez-formalen aitortpena.

47.- Lanbideren web-orrian profesionaltasun-ziurtagiriaren eta Lanbide Heziketako tituluen baliozkotze sistemari buruz eskaintzen den informazioaren arabera (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Profesionaltasun-ziurtagiriak blokeka antolatuta daude, prestakuntza-modulu deritzen bloketan, eta horien bidez kualifikaziorako ibilbide pertsonalizatu bat egituratu daiteke. Hala, hezkuntza administrazioak aukera du Lanbide Heziketako tituluekin bat datozen gaitasun-unitateak baliozkotzeko. Era horretara, LHko titulu arautu bat lortzea errazten da.
- b) Profesionaltasun-ziurtagiriak blokeka antolatuta daude, modulu profesional deritzen bloketan, eta horien bidez kualifikaziorako ibilbide pertsonalizatu bat egituratu daiteke. Hala, lan arloko administrazioak aukera du profesionaltasun-ziurtagiriarekin bat datozen gaitasun-unitateak baliozkotzeko. Era horretara, profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzea errazten da.
- c) Profesionaltasun-ziurtagiriak blokeka antolatuta daude, prestakuntza-modulu deritzen bloketan, eta horien bidez kualifikaziorako ibilbide pertsonalizatu bat egituratu daiteke. Hala, hezkuntza administrazioak aukera du erdi mailako Lanbide Heziketako tituluekin bat datozen 3. mailako gaitasun-unitateak baliozkotzeko. Era horretara, LHko titulu arautu bat lortzea errazten da.
- d) Profesionaltasun-ziurtagiriak eta Lanbide Heziketako tituluak 26 lanbide-familiatan eta hiru kualifikazio-mailatan antolatzen dira, eta aukera ematen dute eskuratutako gaitasun-unitateak elkarren artean baliozkotzeko, bai prestakuntza-mailan, bai lan-esperientziarenean.

48.- Bitartekaritza-zerbitzua emateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailea izateko prozedura ezartzen duen 2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren 2.1 artikulua arabera, zein betekizun bete behar da erakunde laguntzailea izateko?

- Enplegu-agentzia gisa aritzeko gaituta egotea.
- Orientazio-agentzia gisa aritzeko gaituta egotea eta EAEn lan-zentroak izatea.
- Espainiako estatuaren aldi baterako laneko agentzia gisa aritzeko gaituta egotea.
- EAEn prestakuntza-zentro publiko edo unibertsitate gisa aritzeko gaituta egotea.

49.- 2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren 4.2 artikulua arabera, lan-eskaintza kudeatzerakoan hiru modutan parekatu ahalko dira hautagaiak eta enplegu-eskaintzak: parekatze automatikoaz, hedapen bidez eta...

- Hautaketa bidezko parekatzeaz: eskaintzan hautagai gisa eskatutako pertsonen heren bat baino ezingo zaio esleitu enplegu-eskaintzari.
- Parekatze laburtuaz: hautagaiak bilatzeko esparrua lanpostua kokatuta dagoen lurralde historikoaren berdina edo handiagoa bada, eta nahitaezko baldintza bakarra okupazioa bada.
- Eskuzko parekatzeaz: hautagaiak lan-eskaintza bati eskuz esleitzean datza; baldintza jakin batzuk betetzen badira erabil daiteke bide hori.
- Parekatze askeaz: aurreko parekatze automatiko batean lortutako hautagai guztien prestasuna egiaztatu denean.

50.- Zer da Gasteizko Udala? Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- Enplegu-zentroa.
- Orientazio-zentroa.
- Enpresen zentro laguntzailea.
- Orientazio-entitatea.

51.- Webguneko Nire Lanbidenet atalean enplegua bilatzeko prozesurako behar den informazio pertsonalizatu guztia aurki daiteke. Besteak beste, erabiltzaileak honako zerbitzu hauek izango ditu eskura:

- Enpresen kontratazio-beharren eskaria.
- DSBEaren eskabidea.
- Lanbidetik jasotako zerbitzuen zerrenda.
- Lanbideren bulegoek dirulaguntzei buruz bidalitako jakinarazpen pertsonalizatuak.

52.- Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako dirulaguntzen deialdia egiten duen 2017ko apirilaren 27ko Ebazpenaren 8. artikulua arabera, enplegarritasun-tasa definitzen da. Zertan du eragina tasa horrek?

- Aurrekontuaren banaketan.
- Modulu ekonomikoetan.
- Espezialitateen inskripzioan.
- Balioespen-irizpideetan.

53.- Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako dirulaguntzen deialdia egiten duen 2017ko apirilaren 27ko Ebazpenaren 1.5. artikulua dioenez, deialdiaren aurrekontu-kreditua alderdi hauen arabera banatuko da:

- Lurralde historikoa; diruz lagundu daitekeen ekintza mota; kualifikazio-ekintzen kasuan, familia profesionala; kualifikazio-maila eta, dagokionean, profesionaltasun-ziurtagiria lortzera zuzendua badago edo ez badago, I. eranskinean jasotako banaketaren arabera.
- Lurralde historikoa; diruz lagundu daitekeen ekintza mota; prestakuntza-modalitatea; kualifikazio-ekintzen kasuan, familia profesionala; kualifikazio-maila, eta, dagokionean, profesionaltasun-ziurtagiria lortzera zuzendua badago edo ez badago, I. eranskinean jasotako banaketaren arabera.
- Lurralde historikoa; prestakuntza-modalitatea; familia profesionala eta kualifikazio-maila eta, dagokionean, profesionaltasun-ziurtagiria lortzera zuzendua badago edo ez badago, I. eranskinean jasotako banaketaren arabera.
- Eskualdea; prestakuntza-modalitatea; diruz lagundu daitekeen ekintza mota, eta laneratze tasa handiena duten familia profesionalak, I. eranskinean jasotako banaketaren arabera.

54.- Lehenasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako dirulaguntzen deialdia egiten duen 2017ko apirilaren 27ko Ebazpenaren 4. artikulua arabera, zein langilek hartu ahalko dute parte?

- a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden langabeek, eta EAeko okupatutako langileek (% 30 gehienez).
- b) Enplegu zerbitzu publiko batean izena emanda dauden langabeek, eta okupatutako langileek (% 40 gehienez).
- c) Enplegu zerbitzu publiko batean izena emanda dauden langabeek, eta horietan izena emanda dauden okupatutako langileek (% 40 gehienez).
- d) EAeko langabeek, eta okupatutako langileek (% 35 gehienez).

55.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2017ko uztailaren 27ko Ebazpenak —enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak gauzatzearekin lotuta dago— 3. artikuluan xedatzen duenez, diruz lagundu daiteke enplegua lortzeko ibilbide pertsonalizatua egitea. Hauxe dio ebazpenak 3.2.c ataleko jardueraz:

- a) Lan-merkatuari eta enplegu-politika aktiboei buruzko informazioa emango da, eta orientazio-zerbitzuaren erabiltzailearen zorroko zerbitzu komun eta osagarrien eskaintzari buruzko informazioa eskainiko.
- b) Pertsona erabiltzaileari emango zaion arreta espezifikoa jaso eta haren eskaria eguneratuko da, eta, diagnostikoan, haren trebetasunak, gaitasunak, prestakuntza eta eskarmentua, interesak, familia-egoera eta balizko aukera-profesionalak adieraziko dira. Horrez gainera, orientazio-jarduerarako berariaz ezartzen den protokoloan adierazgarritzat jotzen diren gainerako ezaugarriak jaso dira.
- c) Erabiltzailearen profilaria, beharrezkoen eta aurreikuspenen errealizazioaren ondoren, erabiltzaile horrek enplegua eskura dezan egokien irizten den ibilbidea sortuko da, eta hari modu ziur batean jakinaraziko zaio. Ibilbide hori sortzeko, irizpide teknikoak eta estatistikoak erabiliko dira, eta, horrez gainera, ekintza nagusi batzuk, haiek egiteko egutegia eta haiek egiaztatu eta jarraitzeko elementuak zehaztuko dira. Ibilbide hori egiteko, beharrezkoa izango da erabiltzaileak izena ematea eta enplegu-zerbitzu publikoarekin enplegu-akordio pertsonal bat sinatzea.
- d) Tutore edo orientatzaile batek banaka eta modu pertsonalizatuan egingo du erabiltzailearen ibilbidearen jarraipena, eta haren egitekoak izango dira, era berean, ibilbidea berrikusi eta eguneratzea, betebeharrak, helmugak eta etapak finkatzea eta haiek betetzen direla ikuskatzea. Era berean, erabiltzaileak hartutako jarduerak konpromisoaren jarraipena egingo du, baldin eta haiek prestazioen hartzaile baldin badira. Horrez gainera, erabiltzailea suspertzeko eta haren enplegarritasuna hobetzeko aholkularitza, informazio eta laguntza emango du.

56.- Aipatutako ebazpenaren 3.1 artikulua arabera diruz lagun daitezkeen orientazio-jarduera eta zerbitzuek honelakoak izan beharko dute:

- a) Banakakoak.
- b) Presentzialak.
- c) Borondatezkoak.
- d) Taldekoak.

57.- Lanbideren enplegu-zentroen jarduera garatzeko laguntzei buruzko 2017ko uztailaren 27ko Ebazpenaren 3. artikulua arabera, zer dira enplegu-zentroak?

- a) Espazio fisikoak dira, eta, haietan, enplegu bulego batek enplegu bila dauden pertsonen eskura jartzen du leku bat tresna jakin batzuk dituen, beren kasa erabil ditzaten, enplegua bilatzeko jarduerak egiteko eta helburu hori lortzeko baliabideak kontsultatzeko. Orientatzaile baten etengabeko laguntza ere eskaintzen da, eskura dauden tresnak nola erabili azal dezan.
- b) Espazio publikoak dira, eta, haietan, enplegu bulego batek langile okupatu edo langabeen eskura jartzen du leku bat, tresna jakin batzuk dituen, beren kasa erabil ditzaten, enplegarritasuna hobetzeko jarduerak egiteko eta helburu hori lortzeko baliabideak kontsultatzeko. Teknikariak etengabe arituko dira eskura dauden tresnak nola erabili laguntzen.
- c) Espazio fisiko egonkorak dira, eta, haietan, erakunde akreditatuak enplegarritasuna hobetzen ari diren pertsonen eskura jartzen du leku bat, tresna jakin batzuk dituen, beren kasa erabil ditzaten, enplegarritasuna hobetzeko jarduerak egiteko eta helburu hori lortzeko baliabideak kontsultatzeko. Enpleguaren sustapenaren edo edo orientazioaren alorreko teknikari baten etengabeko laguntza ere eskaintzen da.
- d) Espazio fisiko egonkorak dira, eta, haietan, erakunde laguntzaileak enplegu bila dauden pertsonen eskura jartzen du leku bat, tresna jakin batzuk dituen, beren kasa erabil ditzaten, enplegua bilatzeko jarduerak egiteko eta helburu hori lortzeko baliabideak kontsultatzeko. Erakunde laguntzaileak orobat jartzen du pertsona horien eskura orientatzaile bat, etengabe arituko dena eskura dauden tresnak nola erabili laguntzen.

58.- Zein langilerekin gauzatuko da Lanbideren enplegu-zentroen jarduera garatzeko laguntzei buruzko 2017ko uztailaren 27ko Ebazpenean araututako enplegu-zentroetako jarduera?

- Erakunde onuradunen langile propioen bitartez, azpikontrataziorik gabe.
- Langile propio edo kontratatuen bitartez, enplegua sustatzeko eta orientatzeko egun nahi den jardueraren arabera.
- Langile propioen bitartez, edo kontratatuen bitartez jarduera edo zerbitzua gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeei zuzentzen bazaie.
- Langile kontratatuen bitartez, orientazio-jardueretarako behar bezala akreditatua dagoena.

59.- Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako diru-laguntzen deialdia argitaratzen duen 2017ko uztailaren 27ko Ebazpenaren 2.5 artikuluan arabera, zein proiektu lagundu ahalko dira diruz?

- Enplegurako Prestakuntzarako Zerbitzuaren esparruan gauza daitezkeen prestakuntza-proiektuak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeaturik.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein deialditan diruz lagundutako jardueri lotuta gauza daitezkeen kontratuak, edo deialdi horien barruan zuzenean diruz lagunduak izan direnak.
- Enplegurako Lan Aktibazioko Zerbitzuaren esparruan gauza daitezkeen orientazio-proiektuak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeaturik.
- Ebazpenaren 5. artikuluan aurreikusitako erakunde onuradunek egindako tokiko enplegu-proiektuak, dagokien esparru geografikoan tokiko enplegua garatzeko helburua dutenak.

60.- Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako diru-laguntzen deialdia argitaratzen duen 2017ko uztailaren 27ko Ebazpenaren 2.6.3.1 artikuluan, 3. motako jarduerak (enplegu-sorreran eragina duten toki-garapeneko beste ekintza batzuk) langabeziak bereziki ukitutako eskualde eta udalerrietara bideratutako jardueratzat definitzen ditu, zeinak III. eranskinean jasotzen baitira, hain zuzen. Proiektuek ezaugarri hauek izan ditzakete: 1. eta 2. motetako jarduketak, eskualde eta udalerrri guztiei hasiera batean esleitutako aurrekontuarekin aurrera eraman ezin izan direnak eta... (esaldia osatu erantzun ZUZENA emanez):

- Aurreko atalean (1 eta 2 motak) jasota ez dauden toki-garapeneko beste ekintza batzuk, baldin eta haien helburu nagusia enplegua sortzea bada, eta enplegu-nitxo berrietan kokatzen diren proiektu berritzaileak badira.
- Diruz laguntzea eskatzen den proiektuari dagokion lurralde-esparruaren azterlan estrategikoa aurreikusten duten beste ekintza batzuk, eta martxan jar daitezkeen toki-garapeneko proiektuetara bideratutako jardun bat.
- Salbuespen kasuetan, beste zenbait jarduera mota osagarri ere onartu ahal izango dira (deialdi honetan jasotako osagarriak), hala nola lana eta bizitza pertsonala uztartzeko neurri lagungarriak, ekintzen osagarri izan daitezkeenak.
- Beste ekintza batzuk, baina ez da onartuko nor bere lana sortzeko eta ekintzailetzarako jarduerarik, ezta prestakuntzako jardunik ere, modalitatea edozein dela ere.

61.- Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako diru-laguntzen deialdia argitaratzen duen 2017ko uztailaren 27ko Ebazpenaren arabera, 1. motaren barruan (enplegua sustatzea) egiten diren kontratazioek 2. atalean aipatutako 6 betekizunak bete beharko dituzte. Aurki ezazu 4 erantzunen artean aipatutako betekizunetako bat:

- Erakundeetan enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute.
- Kontratuak gutxienez sei hilabeterako izan beharko dute eta edozein kontratu mota erabili ahalko da, praktikaldiko kontratua izan ezik.
- Kontratuak lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako izan daitezke, baina lanaldiak gutxienez % 50ekoa izan beharko du.
- Kontratuak langabeak izan beharko enplegu zerbitzu publiko batean.

62.- Ebazpenaren 2.6.2 artikuluan, 2 motako laguntzak (kontratatorako laguntzak) definitzen dira. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Laguntza horien helburua babes ekonomikoa ematea da titulartasun pribatuko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emandako langabeak merkatu babestuan kontratatu ditzaten errazteko.
- b) Kontratuek gutxienezko 3 hileko iraupena izan behar dute, eta edozein kontratazio-modalitatetakoak izan daitezke, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak izan ezik. Kontratuaren iraupena zenbatzeko, luzapenak ere kontuan hartuko dira, beti ere hasierako kontratua gutxienez 3 hilabetekoa bada.
- c) Kontratuak lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako izan daitezke, baina lanaldiak gutxienez % 50ekoa izan beharko du.
- d) Diruz laguntzeko modukotzat hartzeko, kontratazio horiek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurre-aurreko 3 hiletan enpresak batez beste duen langile kopuruari begira.

63.- Adieraz ezazu aukera ZUZENA 4.1.b) artikuluko 2. motako laguntzen (kontratatorako laguntzen) zenbatekoei dagozkien hutsuneak betetzeko: "b.1. – Lanaldi osoko hiru hileko lan-kontratu bakoitzeko, gehienez euroko laguntza; lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko lan-kontratu bakoitzeko, gehienez eurokoa. b.2. – Kolektibo hauetako pertsonak kontratatzea: DSBE prestazioa jasotzen duten titularrak, lehen enplegua lortu duten 35 urtetik beherako pertsonak, luzaroko langabeak eta 55 urtetik gorako pertsonak; laguntzaren gehieneko muga eurokoa izango da, lanaldi osoko sei hilerako edo gehiagorako lan-kontratu bakoitzeko."

- a) b.1- 3.000 eta 9.000 eta b.2- 12.000.
- b) b.1- 3.000 eta 6.000 eta b.2- 9.000.
- c) b.1- 6.000 eta 12.000 eta b.2- 12.000.
- d) b.1- 3.000 eta 6.000 eta b.2- 6.000.

64.- Laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzei buruzko araudia (adierazi aukera ZUZENA):

- a) 2009ko maiatzaren 4ko AGINDUA, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena.
- b) 2012ko uztailaren 25eko DEKRETUA, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena.
- c) 2017ko uztailaren 27ko EBAZPENEA, Lanbideko zuzendari nagusiarena.
- d) 2008ko ekainaren 25eko ERREGE DEKRETUA, Enplegu eta Gizarte Gaietako Ministerioarena.

65.- Laneratzeko enpresak sortzeari buruzko araudiaren 4. artikulua arabera, diru-laguntza jaso dezakete jardun hauek:

- a) Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzera edo mantentzera bideratutako aktibo finkoetan egindako inbertsioak.
- b) Merkatu-azterlanak egitea, merkatu berriak irekitzeko edo enpresa-jarduera berriz bideratzeko.
- c) Kontu-auditoretzak eta kudeaketa-auditoretzak egitea.
- d) Merkatu-azterlanak egitea, eta azterlan horiei esker jakin ahal izango da enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez.

66.- Lanbideren ekintzaileentzako laguntzei buruzko 2017ko uztailaren 27ko Ebazpenaren xedea da enpresa-proiektuen sustatzaileei 2017an eman beharreko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea, lau laguntza-lerroren bitartez (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Enpresa ideia bat garatzeko laguntzak.
- b) Enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak.
- c) Proiektua ezartzeko laguntzak.
- d) Enpresa jarduerak bat sendotzeko laguntzak, eskualdeko enplegu planak landu eta gauzatzeko laguntza-deialdian parte hartu duten entitateei lagun eginez eta tutoretza emanez.

67. III. kapituluari aurreikusitako laguntzen helburua enpresa-jarduera berriak abian jar daitezzen sustatzea da, ekintzailtzako toki-proiektuen esparruan. Kapitulu horretan aurreikusitako laguntzen onuradun izan ahalko dira laguntza-prozesua hasteko unean eta eskabidea aurkezterakoan 6 betekizun betetzen dituzten ekintzaileak.

OSA EZAZU betekizunen zerrenda, aukera ZUZENA hautatuz.

1. EAEn errolatuta egotea eta benetan bertan bizitzea.
 2. Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
 3. Deialdi honen 3. artikuluan aurreikusitako erakundeetako baten aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesuan sartuta egotea.
 4. Enpresa-jarduerak EAEn izan beharko du egoitza soziala eta fiskala, baita lantokia ere.
 5. Aurreko deialdietan jarduera berri bat martxan jartzeko asmoz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan jasota dauden laguntzetako bakar baten onuradun ez izatea.
- a) Edozein jarduera-adarretako enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko ideia bat izatea.
 - b) Deialdiaren 3. artikuluan aurreikusitako erakundeetako baten eskutik ekintzaileentzako aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesuan sartuta egotea.
 - c) Ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako kideak, betiere diru-laguntza nor bere izenean eskatzen badu.
 - d) Enpresa edo negozio berri bat ezartzeko bideragarritasun-plan bat izatea, dagokion erakunde laguntzaileak lagun egiteko fasean baliozkotua.

68.- Urriaren 31ko 1543/2011 Errege Dekretuak arautzen ditu lanez kanpoko praktikak; 10. artikuluan xedatzen du zeintzuk izango diren onuradunak:

- a) Enplegu bulegoa batean izena emanda dauden gazte langabeak, 18 eta 25 urte bitartekoak (biak barne), honelako titulurik ez dutenak: unibertsitate-titulu ofiziala; lanbide heziketa, erdi mailakoa edo goi mailakoa; azken horren maila berekoa den beste tituluren bat, lanbide heziketako ikasketei edo arte zein kirol ikasketei dagokiena, edo profesionaltasun-ziurtagiri bat.
- b) Enplegu bulegoa batean izena emanda dauden gazte langabeak, 18 eta 25 urte bitartekoak (biak barne), honelako tituluren bat dutenak: unibertsitate-titulu ofiziala; lanbide heziketa, erdi mailakoa edo goi mailakoa; azken horren maila berekoa den beste tituluren bat, lanbide heziketako ikasketei edo arte zein kirol ikasketei dagokiena, edo profesionaltasun-ziurtagiri bat.
- c) Enplegu bulegoa batean izena emanda dauden gazte langabeak, jarduera berean sei hilabetetik gorako lan-harremana edo bestelako lanbide-esperientzia izan dutenak; ondorio horietarako ez dira kontuan hartuko dagozkien titulu edo ziurtagiriak lortzeko curriculumaren barruan dauden praktikak.
- d) Enplegu bulegoa batean izena emanda dauden gazte langabeak, 16 eta 30 urte bitartekoak (biak barne) —gazteen langabezia-tasa ehuneko 20koa edo hortik gorakoa bada—, honelako tituluren bat dutenak: lanbide heziketa, erdi mailakoa edo goi mailakoa; azken horren maila berekoa den beste tituluren bat, lanbide heziketako ikasketei edo arte zein kirol ikasketei dagokiena, edo profesionaltasun-ziurtagiri bat.

69- 1543/2011 EDaren arabera, praktikek iraupen hau izango dute:

- a) 3 eta 9 hilabete bitartean.
- b) 6 eta 12 hilabete bitartean.
- c) 1 eta 3 hilabete bitartean.
- d) 6 eta 18 hilabete bitartean.

- 70.- Zer dio 1543/2011 EDaren 3. artikulua lanekoak ez diren praktiken hartzaileez eta horien edukiaz?
- Parte hartzen duten gazteek laguntza-beka bat jasoko dute praktikak egiten dituzten enpresarengandik edo enpresa taldearengandik, zeinaren zenbatekoa unean-unean indarrean dagoen hileko IPREMaren ehuneko 60koa izango baita gutxienez; pertsona horiei ezingo zaizkie aplikatu urriaren 24ko 1493/2011 EDan Gizarte Segurantzaren sartzeko aurreikusita dauden mekanismoak.
 - Parte hartzen duten gazteek laguntza-beka bat jasoko dute praktikak egiten dituzten enpresarengandik edo enpresa taldearengandik, zeinaren zenbatekoa unean-unean indarrean dagoen hileko IPREMaren ehuneko 90koa izango baita gutxienez; pertsona horiei urriaren 24ko 1493/2011 EDan Gizarte Segurantzaren sartzeko aurreikusita dauden mekanismoak aplikatuko zaizkie, FSEaren araudian aurreikusitako salbuespenak kenduta.
 - Parte hartzen duten gazteek laguntza-beka bat jasoko dute praktikak egiten dituzten enpresarengandik edo enpresa taldearengandik, zeinaren zenbatekoa unean-unean indarrean dagoen hileko IPREMaren ehuneko 80koa izango baita gutxienez; pertsona horiei urriaren 24ko 1493/2011 EDan Gizarte Segurantzaren sartzeko aurreikusita dauden mekanismoak aplikatuko zaizkie.
 - Parte hartzen duten gazteek laguntza-beka bat jasoko dute praktikak egiten dituzten enpresarengandik edo enpresa taldearengandik, zeinaren zenbatekoa unean-unean indarrean dagoen hileko IPREMaren ehuneko 70koa izango baita gutxienez; pertsona horiei urriaren 24ko 1493/2011 EDan aurreikusita dauden laneratze mekanismoak aplikatuko zaizkie.
- 71.- 1543/2011 EDaren 5. artikulua arabera, enpresak gazte bekadunak kontratatu ahalko ditu... (adieraz ezazu erantzun OKERRA):
- Praktikak amaitutakoan.
 - Praktikak egiten ari diren bitartean.
 - Sei hilabetez lanaldi osoan edo 12 hilabetez lanaldi partzialean.
 - Praktikak kooperatiba edo lan-sozietate batean egin baditu, bazkide gisa sartu ahalko da.
- 72.- Enpresetan lanekoak ez diren praktikak (1543/2011 ED) kudeatu, jarraipena egin, ebaluatu eta kontrolatzeari buruz Lanbidek emandako instrukzioaren 5. puntuak ezartzen duenez (adieraz ezazu erantzun OKERRA):
- Tokiko eremuan praktikak sustatzen dituen erakundea arduratuko da praktikak egingo dituzten hautagaien aurre-hautaketarako prozesua egiteaz, baita eskatzailearen historian esperientzia praktikoko honen emaitza ezartzeaz ere, dagokion ziurtagiriari buruzko datuak jasoz.
 - Enpresak praktikak egiteko hautagaiaren bat aurkezten badu, tokiko erakunde sustatzaileak egiaztatuko du instrukzioaren 2. puntuan zehaztutako eskakizunak betetzen dituela.
 - Enpresak hautagairik aurkezten ez badu tokiko antolakunde edo enteak aurre-hautaketa egin dezan, enpresak zerbitzuen eskaintza bat aurkeztu beharko du tokiko enplegu zentroan, harekin sinatutako hitzarmenaren arabera.
 - Enpresak eta enplegu bulegoak adostuko dute elkarriketatuta beharrek pertsonen kopurua; horiek ez dira inola ere hiru baino gutxiago izango, eta enpresak ere bere hautagaiak aurkeztu ahalko ditu. Behin betiko aukeraketa, nolana ere, enpresari dagokio.
- 73.- Praktiken kudeaketari buruz Lanbidek emandako instrukzioaren 6.3 puntuaren arabera, zer entregatu beharko du enpresak praktikak amaitzen direnean, horiek ebaluatu ahal izateko?
- Memoria deskriptibo bat.
 - Parte-hartzaileei egindako kontratuak.
 - Parte-hartzaileen asistentzia eta egindako praktika-orduak jasotzen dituen txostena.
 - Asistentzia, ikasleak egindako orduak eta horiek eteteko arrazoiak —halakorik gertatu bada— jasotzen dituen txostena.
- 74.- Gazte Bermerako Sistemaren gazte bermerako programaren datu-basea maila honetan kudeatzen da:
- Estatua.
 - Autonomia erkidegoa.
 - Lurralde historikoa.
 - Udalerrria.
- 75.- Gazte Bermea 2019-2020rako Gazte Enpleguaren aldeko Talka Planaren bidez sustatzen da. Plan horretan hainbat jarduera-ardatz, neurri eta helburu zehazten dira. Neurri hauetatik, zein dagokio 2. ardatzari (prestakuntza)?
20. neurria: eredu berritzaileak prestakuntza eta enpleguan. Bigarren aukerako eskolak.
 23. neurria: enplegu eta prestakuntza programa mistoak.
 26. neurria: prestakuntza duala sustatzea, prestakuntza eta ikasketa kontratuaren bitartez.
 31. neurria: lanekoak ez diren praktiken estatutua.

76.- Zein dira FSEaren deialdiaren onuradunak 2017ko otsailaren 6ko ebazpenaren bidez araututako gazteen programa eragilean?

- a) 16 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako pertsonak.
- b) Gazte Bermearen Fitxategian izena emanda dauden gazteak.
- c) 50.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietako udalak.
- d) Enpresak.

77.- GARAPEN elkarte profesional bat da, eta Euskadiko tokian tokiko erakundeek eraturako garapen-agentziak batzea du xede, helburu hauek oinarritzat hartuz (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Maila endogenoan garatzea tokian tokiko ekonomia, eta garapen horren proiektzio estrategikoa eta aplikazio operatiboa lantzea.
- b) Informazio- eta jakintza-trukea sustatzea, lankidetzako eta kooperazioko proiektuak garatuz.
- c) Agentziei guztien interesekoak diren programetan sinergiak garatzeko zerbitzuak ematea.
- d) Erakunde publiko zein pribatuen aurrean irizpide eta jarrera bateratuak eratzea, haien ekintza-eremuen barruko gaitan.

78- GARAPENek hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, hau, besteak beste:

- a) Intereseko informazioa eta aholkularitza kide diren udalerrietako pertsonentzat, hainbat bide baliatuz, hala nola txostenak, buletinak, telefono bidezko arreta, eta intranet.
- b) Etengabeko prestakuntza agentzia osatzen duten udalerrietako langile okupatuentzat. Hausnarketa-foroak: erronkak, joerak eta interes estrategikoko ekintzak elkarrekin aztertzeke guneak.
- c) Lantaldeen bidez, agentzien artean esperientziak eta metodologiak trukatzeko prozesuak kudeatzea eta koordinatzea.
- d) Enplegu proiektuen banakako ibilbideen kudeaketa.

79.- Enpleguaren aldeko Hirien Foroaren erakunde-adierazpenak hau dio, besteak beste:

- a) Erkidego mailan, argi dago toki-erakundeek enplegu-politiken definizio eta programazioan duten partaidetza ez dela nahikoa, eta ez datorrela bat estatuko enplegu zerbitzu publikoaren zuzendaritzan duen ordezkartzarekin.
- b) Enplegu-politiken finantzaketak moldagarritasunaren eta administrazio publikoen arteko koherentziaren printzipioei jarraitu behar die, lurraldeen autonomia ahalbidetuz.
- c) Argi zehaztu behar dira udalen eskumenak, beste administrazio batzuek konkurrentzia-erregimenean ematen dituzten programa eta dirulaguntzen mende gera ez daitezen.
- d) Enplegu-politika aktiboak sakon eraberritu behar dira, bai orientazioari dagokionez, bai finantzaketari dagokionez, nabarmen handitu beharko bailitzateke enplegarritasuna hobetzeraz zuzendutako programen finantzaketa, eta horien kudeaketa- eta ebaluazio-eredua.

80- Enpleguaren aldeko Hirien Foroan udalak dira kide aktiboak. Euskadin, zein udal da Foroko kide?

- a) Bilbo.
- b) Donostia.
- c) Gasteiz.
- d) Hirurak.

81- 2017-2019rako IV. Gazte Planak gazteekin lotutako udal-jarduerak antolatzeke, gauzatzeke, jarraipena egiteke eta ebaluatzeke oinarritzat hartzen diren printzipio gidariak jasotzen ditu. Zein dira horiek?

- a) Belaunaldien arteko ikuspegia, korrespondentzia, aukera-berdintasuna, iraunkortasuna, euskara, errespetua eta elkarbizitza, osotasuna, kalitatea.
- b) Kalitatea, herritarren partaidetza, aukera-berdintasuna, errespetua eta elkartasuna, hizkuntza dibertsifikazioa, osotasuna, iraunkortasuna.
- c) Euskara, gizarte iraunkortasuna, gardentasuna eta emaitzen ebaluazioa, aukera-berdintasuna, erantzunkidetasuna, errespetua eta elkarbizitza, integrazioa.
- d) Erantzunkidetasuna, iraunkortasuna, genero-ikuspegia, aukera-berdintasuna, euskara, errespetua eta elkarbizitza, osotasuna, kalitatea.

82- Zenbat jarduketa-eremu ditu IV. Gazte Planak?

- a) 4.
- b) 5.
- c) 6.
- d) 7.

83- IV. Gazte Planaren 1. jarduketa-eremuak (emantzipazioa) planteatzen dituen helburuetako bat da:

- a) Gazteen kontratuen kalitatea sustatzea.
- b) Gazteek osasun zerbitzu integratu bat eskuratzeko aukera izan dezaten lehenestea.
- c) Etxebizitza-emantzipaziorako lehenengo esperientziak bultzatzea.
- d) Gazte langabeen errealitatea aztertzea, bereziki unibertsitate-ikasleenak.

84- Zein helbururekin erlazionatzen da IV. Gazte Planaren L.1-10 ekintza, enplegurako eta prestakuntzarako baliabideen mapari buruzkoa?

- a) Pertsona gazteak gaitzea, lan-merkatuan txerta daitezen, haien enplegarritasun-baldintzak hobetuz.
- b) Pertsona gazteek informazio eguneratua eta baliagarria eskuratzeko aukera izatea, beren emantzipazio-prozesuak babestu eta hobe ditzaketen baliabideen nahiz kasu bakoitzean gertatzen diren arazoen berri izan dezaten.
- c) Pertsona gazteen ekintzailtza-prozesuak erraztea, maila administratiboan eta ekonomikoan.
- d) Desabantaila-egoeran dauden gazteen laneratzea erraztea.

85.- Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak hainbat jarduera garatzen ditu beste batzuekiko lankidetzan. Zeintzuk dira horiek, 2017ko oroitidazkiaren arabera? (adieraz ezazu erantzun egokiena eta ZUZENENA)

- a) Gizarte eta lurralde eragileak, azken helburu gisa hiriaren garapen ekonomiko eta soziala lortu nahirik.
- b) Erakundeak, enpresak, tokiko antolakundeak... azken helburu gisa hiria aukeren ingurunea, iraunkorra eta solidarioa bihurtzea lortu nahirik.
- c) Enpresak eta herritarrak, azken helburu gisa bertako biztanleen ongizatea eta gizarte-integrazioa lortu nahirik.
- d) Beste erakunde eta enpresa batzuk, azken helburu gisa hiriaren garapen ekonomikoa eta herritarren gizarte-ongizatea lortu nahirik.

86. Zein dira Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren jarduera-eremuak, besteak beste?

- a) Hiriarentzat estrategikoak diren jarduera-sektoreei laguntzea, hala nola ekonomia berdea, sorkuntzaren industriak, merkataritza eta turismoa.
- b) Industrialdeak hobetzea.
- c) Pertsonen lan-merkatuan txertatzen laguntzea zenbait tresnaren bidez (orientazioa, prestakuntza, enplegu-planak...).
- d) Enpresen iraunkortasuna eta lehiakortasuna bultzatzea.

87- Kontratazioa sustatzeko jardueren barruan zeharkako kontrataziorako planak sartzen dira. Zer jotzen da zeharkako kontrataziorat?

- a) Gasteizko enpresetan kontratazioak egiteko laguntzak, lan egonkortasunerako laguntzak eta ekonomia sozialeko enpresei erreserbatutako enplegu-programak.
- b) Aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzeko laguntzak; gizartetik baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonentzako enplegu eta prestakuntzako proiektuak, Eskualdeko Enplegu Planaren barruan, eta plan horren barruko gazteentzako 1. laneratzerako enplegu programak.
- c) Udal enpresetan kontratatze laguntzak, enpleguaren kalitatea sustatzeko laguntzak eta irabazi-asmorik gabeko enpresentzat erreserbatutako programak.
- d) Sozialki arduratsuak diren enpresetan kontratatze laguntzak, ekonomia sozialeko enpresetan kontratatze laguntzak, gizarteratze-enpresentzako enplegu-programak.

88- Zein taldek dute prestakuntza jasotzeko lehentasuna Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailarentzat?

- a) Prestakuntza gabezia, lan-esperientzia eza edo lan-esperientzia txikia direla eta enplegua eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak.
- b) Nolabaiteko prestakuntza eta lan-esperientzia duten langabeak, lanbide-profila eguneratzeko beharra dutenak.
- c) Gizartetik baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonak.
- d) Kualifikazio maila txikia duten 30 urtetik beherako gazte langabeak eta 45 urtetik gorako langabeak.

89.- Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren jardura-eremuen artean sartzen dira (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Aurrez aurreko ekintzak eta teleprestakuntzakoak.
- b) Langabeen enplegarritasuna hobetzeko ekintzak.
- c) Enpresen prestakuntzarako ekintzak.
- d) Prestakuntza-ekintzak Gasteizen enplegurako garrantzi handiena duten jardura ekonomikoetan.

90.- CETIC Gasteizko Udalaren mendeko prestakuntza zentroa da, eta Lanbide-EEZren baimena du prestakuntza hauek emateko, besteak beste (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Formala edo akreditagarria.
- b) Ez-formala edo inskribatua.
- c) Osagarria.
- d) Informatika eta administrazioaren familia profesionalean.

91.- Gizarteratze-enpresen erregimena arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legearen arabera, zer da gizarteratze-enpresa?

- a) Sozietate kolektibo edo komanditarioa.
- b) Ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko edozein jardura ekonomiko egiten duena, baldin eta helburu sozialtzat ezintasunak dituzten pertsonen gizarte eta lan integrazioa eta prestakuntza dutenak, enplegu arruntera igarotzeko bide gisa.
- c) Gizarteratze ibilbideen barruan langileei prozesu pertsonalizatu eta lagunduak —lan ordaindua, orientazioa lanpostuan, lanera eta gizartera ohitzea— eskaintzen dizkietenak.
- d) Esku hartzeko edo lagun egiteko zerbitzuak dituztenak, gizarteratzeari eta laneratzeari begira, ondoren lan-merkatu arruntean sartzea erraztearren.

92.- Aipatutako legearen 44. legearen 2. artikulua gizarteratze-enpresako langileei buruzkoa da. Zein talde kontratatu daiteke horren arabera?

- a) 18 urtetik gorako eta 25 urtetik beherako gazteak, adingabeak babesteko instituzioetatik datozenak.
- b) Gizarteratzeko errenta aktiboa.
- c) Droga-mendetasuneko arazoak edo beste adikzio-arazo batzuk dituzten eta errehabilitatzeko edo gizarteratzeko prozesuan dauden pertsonak.
- d) Osasun zentroetako egoiliarak.

93.- Gasteizko Udalak hilero argitaratzen dituen txosten sozio-ekonomikoen lan-merkatuaren 4 adierazle barne hartzen dituzte (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Gizarte Segurantzarekiko afiliazioa.
- b) Enplegarritasun-tasa.
- c) Kontratuak.
- d) Enplegu-bilatzaileak.

94.- SEPEaren estatuko lan-merkatuari buruzko 2017ko txostenak gaitasun tekniko-profesioaletan antzemandako prestakuntza beharrak zerrendatzen ditu. Txostenaren arabera, oso lanpostu ezberdinak eta berezko gaitasunak dituztenak egon arren, horiek taldeetan multzokatu daitezke, taldeen barruko prestakuntza beharrak deskribatuz. Zein dira lanpostu horiek? (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Sektoreko zereginak betetzeko merkataritza, administrazio eta kontularitza edukiak eskatzen dituzten lanpostuak, zeinetan prestakuntza eduki hauekin osatu behar baita: aurrekontuen lanketa, ordaintzeko bideak, inbentario eta hornikuntzen kudeaketa, bezeroekiko harremanen kudeaketa, komunikazioa, pertsuasioa, gatazken kudeaketa, plangintza, antolaketa eta kontrola.
- b) Establezimenduen kudeaketa eta zuzendaritza lanpostuetan, beharrezkotzat jotzen da alderdi hauekin lotutako prestakuntza: enpresa-kudeaketa, enpresaren berezko prozedura espezifikoak, ekipoak kudeatzeko antolakuntza aldaketak, ingurumen kalitatearen eta segurtasunaren kudeaketa, marketin estrategiak, revenue management, merkataritza digitala eta upselling eta crossselling salmenta teknikak. Azken hiru horiek harrera lanpostuetan ere beharrezkoak dira, beste hauekin batera: erreserben kudeaketa, kexa eta erreklamazioen tratamendua, eta turismo-informazioa, tokiko zerbitzuak eta turismo-ibilbideen lanketa.
- c) Turismo ekitaldi eta jarduerak sustatu eta antolatzearekin lotutako lanpostuetan, prestakuntza honen beharra aipatzen da: zona propioen eta ondokoan girotze turistikoa; eskaintza turistikorako produktu eta zerbitzuak; turismo ibilbideak lantzea; bidaia espezializatuak eta turismoa, eta online-ko marketina.
- d) Joko areto eta antzekoetako lanpostu batzuetan prestakuntza hau ematea komeniko litzateke: tableten erabilera mahaien eguneroko kontrolerako; euskarri telematikoa duten online apustuak; ausazko makinak kudeatzeko programazio berriak, legezko diruaren (billeteen) ordez tiketak erabiltzeko (TITO sistema).

95.- Arabako Foru Aldundiak enplegurako prestakuntzarako laguntzak emateko 2018an egindako deialdiaren arabera, hauek jaso ahalko dituzte dirulaguntzak enplegurako prestakuntza ikastaroen tipologian:

- a) Lanbide Heziketako ikastetxeak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak akreditatuak.
- b) Unibertsitate fakultateak eta eskolak.
- c) Irabazteko xederik gabeko entitateak (fundazioak, elkarteak eta abar), Arabako Foru Aldundiaren erakundeen erregistroan prestakuntzako entitate gisa akreditatu eta/edo inskribatuak.
- d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan enplegu-zentro berezi gisa akreditatu eta/edo inskribatuta dauden enpresak edo entitateak, edo, hala balegokio, estatuko erregistroan daudenak.

96.- Estatuko lan-merkatuari buruzko 2017ko txostenak aipatzen duenez, azaroaren 26ko 1591/2010 Errege Dekretuak — indarrean dagoen Lanbideen Sailkapen Nazionala (CNO-11) onetsi zen haren bidez— 10 lanbide talde handi zehazten ditu.

Aipatutako txostenaren arabera (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) 2014tik 2016ra joera positiboa erakusten duten lanbideak talde hauetan metatzen dira: 5, jatetxeetako langileak; 4, kontabilitateko eta administrazioetako langileak; 8, instalazio eta makinetako operadoreak, eta 9, oinarriko lanbideak. Horiek guztiek etorkizun ona duten lanbideetako kontratazioen % 77 osatzen dute, eta horien artean hauek nabarmentzen dira kontratuen bolumenagatik: zerbitzariak; dendetako eta biltegietako saltzaileak; nekazaritzako peoiak; administrazioetako langileak; gidariak; makineria, zerratoki eta orga-jasotzaileetako operadoreak; logistikako langileak; banatzaileak, mandatugileak, eta otordu lasterren prestatzaileak.
- b) Kualifikazio handieneko taldeetan (1, 2 eta 3 taldeak), hauek dira egoera onena duten lanbideak enpleguari begira: osasunarekin lotutakoak (medikuak, fisioterapeutak, odontologoak), irakaskuntzarekin lotutakoak, ingeniariak, elektrizitate eta mekanika teknikariak, eta informazioaren teknologien alorreko profesionalak (teknikariak, programatzaileak, analistak, diseinatzaileak). Kontsultatutako adituen iritziz, azken horien artean etorkizun ona dute lanbide hauek: sareen teknikari eta analistak, web-teknikariak, datu-baseen diseinatzaile eta administrazioaileak, eta elektrizitate, telekomunikazio, industria eta agronomia ingeniari teknikoak zein ingeniariak.
- c) Artisauen eta manufaktura-industrietako eta eraikuntzako langile kalifikatuen artean hauek aurkitzen ditugu: elikagaien eta edarien industriako langileak (hiltzaileak, okinak, pastelgileak, esnea tratatzeko langileak, kontserben alorreko langileak), eta zuraren, ehunaren eta jantzigintzaren langileak. Adituek lanbide hauek nabarmentzen dituzte talde horren barruan: metaleko arotzak, industrietako pintoreak, mekanikariak, klimatizazio ekipoen instalatzaileak, eta ekipo elektronikoaren konpontzaileak, informazioaren teknologien konpontzaileak, eta elikagaien eta edarien dastatzaileak eta sailkatzaileak.
- d) 10. taldean (balio anitzeko lanbideak, zeharkako kualifikazioa eskatzen dutenak) hauek sartzen dira: parke eolikoaren muntatze eta mantentzearekin eta fluidoaren banaketako proiektu eta sareekin lotutako zerbitzu-erakunde langileak. Adituek nabarmentzen dute lanbide hauetan antzemandako hazkunde handia: fluidoaren banaketako sare eta sistemak laguntzaileak eta aerosorgailuak muntatzeko laguntzaileak.

97.- Nola definitzen du okupazioa Estatuko lan-merkatuari buruzko 2017ko txostenak?

- Lan jardueren multzoa, zeinean produktuak, ondasunak edo zerbitzuak sortu eta trukatzeko baitira, lan-merkatuaren beharrak betetzeko.
- Produkzio sisteman identifikagarria den lan jardueren multzoa, zeinek gauzatze maila ezberdinak eskatzen baitituzte dagozkien gaitasun profesionalak betetzeko.
- Antzekotasuna duten enpleguen multzoa; enplegutzat ulertzen da lanpostu bat osatzen duten zereginen multzoa, horiek pertsona berak egingo dituela jotzen delarik.
- Arlo profesional batean identifikagarriak diren lan jardueren multzoa, zeinek kualifikazio-maila bera eskatzen baitute dagozkien gaitasun profesionalak betetzeko.

98.- Zer dio Lanbide-EEZk landutako 2017ko lan-merkatuaren balantzeak?

- Lurralde historikoen arabera, Araba izan da 2017an eboluzio onena izan duena 2016. urteko datuen aldean (-% 8,1); ondoren, Gipuzkoa (-% 6,7) eta Bizkaia (-% 5,4) datoz.
- Eskualdeen arabera, leku hauetan langabe kopurua termino absolutuetan jaitsi izana nabarmentzen da: (i) Arabako Mendialdea (-1.115); (ii) Bidasoa (-1.031) eta (iii) Eskuinaldea (-892).
- Adinaren arabera, kontratatutako pertsonen portzentaje handiena duen tarte 20-24 urtekoa izan da, % 40,0 baita guztizkoaren aldean; ondoren datoz 30-44 urte bitartekoak (% 25,8), 25-29 urte bitartekoak (% 16,1), 45 urtetik gorakoak (% 12,3) eta 20 urtetik beherakoak (% 5,8).
- Sexuaren arabera, emakumeen okupazioa gehiago hazi da (+11.032 pertsona) gizonena baino (+2.735).

99.- Euskadiko lan-merkatuan 2017an izandako gertakari nagusiei buruzko txostena aldagai garrantzitsuenen portaera aztertuz egin da. Lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiak hartu dira kontuan, besteak beste... (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- Erregistratutako langabezia.
- Gizarte Segurantzarekiko afiliazioa eta kontratuen erregistroa.
- CDFOPk landutako txosten prospektiboak Europako jardura ekonomikoko sektoreen etorkizuneko beharrez.
- Lan-jardueraren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak (INEren Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta Eurostat-en European Union Labour Force Survey inkestaren datu batzuk).

100.- Biodiversidad fundazioaren Enplegu Berdeko Programak bi bloke tematiko ditu; urdina eta berdea. Zertan laguntzen dute biek? (adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- Ozeanoen garapen iraunkorrean oinarritutako ekonomia bat garatzen.
- Energia eolikoan oinarritutako ekonomia bat garatzen.
- Produkzio eredu berriak azaleratzen.
- Kontsumo-eredu iraunkor berriak azaleratzen.

101.- Biodiversidad fundazioaren Enplegu Berdeko Programaren helburuetako bat (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- Ingurumena eta iraunkortasuna enplegu hobeen oinarriak izan daitezen.
- Ingurumena eta iraunkortasuna enpresa lehiakorragoen oinarriak izan daitezen.
- Enplegatuak eta enpresak aktore gakoak izan daitezen ingurumenaren hobekuntzan.
- Pertsonak eta enpresak kontziente izan daitezen ingurumenaren kalteberatasunaz eta haren iraunkortasunaren beharraz.

102.- FSEak kofinantzatutako 2014-2020 aldirako Gizarte Inklusio eta Ekonomia Sozialerako Programa Eragilea (POISES) da Espainiar estatuak diseinatutako tresnetako bat Europa 2020 Estrategiak ezarritako helburuak lortzen laguntzeko, bereziki hazkunde integratzailearekin lotutakoak. POISESaren arabera, hazkunde integratzailea sustatzeko beharrezkoa da helburu hau duten osagai-multzo bat (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- Pobreziaren, gizarte-esklusioaren eta bazterkeriaren kontrako borroka indartzea.
- Erakundeen eta gizarte-eragileen kopartaidetza sustatzea.
- Lan-merkatuan sartzeko aukera-berdintasuna bermatzea.
- Ekonomia sozialak berpizte ekonomikorako duen potentziala baliatzea.

103.- POISES-Gizarte Inklusio eta Ekonomia Sozialerako Programa Eragilearen 2017ko deialdiak, 8.3 inbertsio lehentasunarekin lotuak (8.3.1 helburu espezifikoak), deialdiaren xede izan daitezkeen bi proiektu mota ezartzen ditu. Horieta bat ekonomia sozialeko enpresak eta entitateak sortzea da. Zein da bigarrena?

- Ekonomia sozialeko enpresa eta entitateen lehiakortasuna hobetzea eta enpresak sendotzen laguntzea.
- Ekonomia sozialeko entitateen elkarte edo taldeak indartzea.
- Gizareratze-enpresen, ekimen sozialeko kooperatiben edo ekonomia sozialeko enplegu-zentro berezien lehiakortasuna hobetzea eta enpresak sendotzen laguntzea.
- Enplegu babestutik enplegu arruntera igarotzeko proiektuei laguntzea.

104.- Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 12.4 artikulua zenbait arau ematen ditu lanaldi partzialeko kontratazioetarako (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- Kontratua, nahitaez, idatziz jaso behar da. Kontratuan argi eta garbi zehaztu behar da zenbat ordu arrunt egin behar diren egunean, astean, hilean edo urtean, baita horiek nola banatuta dauden ere, hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoaren arabera.
- Lanaldi partzialeko kontratuaren arabera egunean lanaldi osoko kontratua duten langileek baino ordu gutxiago egin behar badira, eta lanaldi hori zatitua bada, eguneroko lanaldi horretan eten bakarra egin ahal izango da, non eta hitzarmen kolektiboan besterik esaten ez den.
- Lanaldi partzialeko langileek aparteko orduak egin ahalko dituzte, salbu 35.3 artikulua aipatzen dituen kasuetan.
- Lanaldi partzialeko langileek lanaldi osoko langileek dituzten eskubide berak izango dituzte.

105.- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikulua kontratuaren iraupenari buruzkoa da. Horren arabera, langileak kontratatzeko modua edozelakoa izanda ere langile finko bihurtuko dira... (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- Legez probaldirako finkatu zitekeen epearen bestekoa igaro ondoren Gizarte Segurantzaren alta eman gabe dauden kontratuak.
- Lege-iruzurrez itundutako aldi baterako kontratuak.
- Hogeita hamar hilabeteko epean hogeita lau hilabete baino denbora gehiagoan kontraturik egon diren langileei egindako kontratuak, berdin dio etenik egin gabe edo etena eginda, enpresa berean edo enpresa-talde berean, postu berean edo ezberdinetan, aldi baterako bi kontraturen edo gehiagoren bidez, berdin dio zuzenean edo aldi baterako laneko enpresetatik etorrira, eta berdin dio epe jakineko kontratuak mota berekoak edo ezberdinekoak izan dituen.
- 24 hilabeteko epean enpresa-ondorengotza edo -subrogazio kasuak sortu dituzten pertsonen egindako kontratuak, legez edo konbentzioz zehazturik dagoen bezala gertatzen bada.

106.- Zer ezartzen du 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 8. artikulua kontratuaren formari buruz? (Adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- Lan-kontratua idatziz edo berbaz egin daiteke.
- Beste norbaitek antolatu eta zuzendutako eremuan, eta haren kontura, zerbitzuak betetzen dituen edonork, eta soldata baten truke azken horren zerbitzuak jasotzen dituen edonork, elkarren artean lan-kontratua daukatela ulertu behar da beti.
- Idatziz egin behar diren kontratu guztien oinarritzako kopia bat eman behar dio enpresaburuak kide den enpresa-elkarteari, baldin eta goi-zuzendaritzako lan-harreman berezietan lotutakoak badira.
- Enpresaburuak egiten dituen lan-kontratu berri edo luzatzen dituen berri eman behar dio enplegurako bulego publikoari, eta berdin dio idatziz egindakoak edo bestelakoak izango diren. Horretarako, hamar eguneko epea izango dute kontratua egiten denetik, eta erregelamenduz ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

107.- Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bitartez Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/23/UE Zuzentarauak. Legearen 201. artikulua ezartzen duenez, kontratazio-organismoek behar diren neurriak hartu dituzte kontratuak gauzatzean kontratistek alor hauetan aplikatzekoak diren betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- Europar Batasunaren zuzenbidean ezarritako ingurumen, gizarte eta lan betebeharrak.
- Nazioarteko zuzenbidea.
- Euskal zuzenbidea.
- Ingurumen, gizarte eta lan arloan nazioarteko zuzenbideak xedatutakoak, Estatuari badagozkio.

108.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bitartez Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/23/UE Zuzentarauak. Legearen 202. artikulua ezartzen duenez, kontratazio-organismoek baldintza bereziak ezarri ahalko dituzte kontratua gauzatzeari dagokionez, baldin eta (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Kontratuaren xedeari lotutakoak badira.
- b) Kontratuan zehazten badira.
- c) Zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira.
- d) Zuzenbide komunitarioarekin bateragarriak badira.

109- Zein helbururekin ematen ditu BIC ARABA SAK zerbitzuak? (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Gizartearekiko arduratsua diren ekimenak gara daitezzen sustatzea.
- b) Ekintzaileei eta enpresei enpresa-ekimen berritzaileak eta/edo teknologian oinarritutakoak sustatzen laguntzea.
- c) Tresna dinamizatzaile moduan lan egitea, ekoizpen-ehunean enpresa-proiektu berriak sartzeko.
- d) Proiektuei ahalik eta arrakasta-berme handienekin aurre egiten laguntzea, betiere berrikuntzarekiko eta lehiakortasunarekiko konpromisoarekin.

110- BIC Arabarentzat, enpresa-sustapena da Araban garapen ekonomikoari lagunduko dioten proiektuak aurkitzea eta abian jartzen laguntzea. Nolako zerbitzuak eskaintzen ditu horretarako? (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Consulting eta aholkularitza.
- b) Enpresa-prestakuntza.
- c) Enpresa-proiektuen arteko koordinazioa.
- d) Azpiegiturak.

111.- Gasteizko Udalaren enpresa zentroyen sareak inguru egonkorra eskaintzen du, hirian enpresa sortu berriak instalatzea errazten duena. Zein hornikuntza dute zentro horiek? (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Azpiegiturak, pabilioiak eta bulegoak, prezio lehiakorretan.
- b) Zerbitzu komunak eskaintza zabala, enpresa sortu berritan zein geroko garapen eta sendotzean laguntzeko.
- c) Beste enpresa batzuekin erlazioatzeko, kontaktu profesionalak egiteko eta lankidetzak akordioak lotzeko behar den euskarria.
- d) Enpresa-prestakuntza.

112.- Zein gunek osatzen dute Gasteizko Udalaren enpresa zentroyen sarea? (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Zentro propioek, hala nola Erdi Aroko hiriguneko enpresa-zentroa, Jundizko enpresa-zentroa eta Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresen zentroa.
- b) Enpresa publikoen beste zentro batzuek, hala nola Arabako campuseko Lascaray ikerketarako zentroa, Ajebask-en mintegia eta Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, SA.
- c) Zerbitzuen sektorerako eta izaera teknologikoko enpresa pribatuen beste zentro batzuek.
- d) Coworking-eko espazio pribatuek.

113- GPS proiektuak materiala eskaintzen die irakasle zein orientatzaileei, ikasketei eta lanari buruzko orientazioa lantzerik izan dezaten. Hauetako bat OKERRA da:

- a) Tutoretza fitxak.
- b) Pedagogia liburuak.
- c) Bideoak eta tutoretza filmak.
- d) Erreferentziatzko web-orriak.

114- Tutoretza fitxak 4 unitate didaktikoz osatuta daude, arlo honekin lotuta (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Aukera-berdintasunari buruzko ikuspegia.
- b) Autoezagutza.
- c) Prestakuntza-aukerak.
- d) Lan-aukerak.

115.- Udalaren hezkuntza jardueretako batzuk (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) 0-3 urte bitarteko hezkuntza arreta : Udalaren haur-eskolak, Haurreskolak partzuergoa, matrikulazioa...
- b) Udalaren kontziliazio jarduerak: eskolaz kanpoko ekintzak, kirol udalekuak, musika jardueren campusa, ingurumen-udalekuak...
- c) Ikasleen gurasoen elkarteak: opor programetarako dirulaguntzak, eskolaz kanpoko ekintzetarako eta ekintza osagarrietarako dirulaguntzak...
- d) Ikastetxeentzako programa eta zerbitzuak: ikastetxeak mantentzea, laguntza psikopedagogikoa.

116.- Udalaren hezkuntza jardueretako bat haur, nerabe eta familientzako programa eta baliabideen gida praktikoa lantzea da. Aipatzen dituen baliabideetako bat eskolaratzea eta hezkuntza jarduerak dira, zeinaren barruan arlo hauei buruzko informazioa ematen baitu (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Haur-eskolak, Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxeak, eta arte-hezkuntzako eta hizkuntzetako beste ikastetxe batzuk.
- b) Hezkuntzarako laguntzak eta dirulaguntzak, hiri-garraioarekin lotutakoak.
- c) Hezkuntzari buruzko informazio bulegoa, Euskal Eskola Publikoko ikasleen gurasoen federazioak kudeatzen duena.
- d) Genero-ikuspegiaren alorrean, orientazio psikosozilogikorako laguntzak.

117.- Emakundek landutako "Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa enpleguaren esparruan" agiriaren 2.4 puntua gizarte arauen eta balioen eragina aztertzen du. Horren arabera, lan-merkatuan oraindik indarrean diraute genero estereotipoek eta sexuaren arabera segregazioak, zeinak, batik bat, bi forma hartzen baititu: segregazio horizontala eta bertikala. Europako Batzordearen 1996ko txostenari jarraituz, hori batez ere lau faktoreri zor zaiola dio (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Segregazio bertikala eta kristalezko sabaia (enplegu femeninoak okerrago ordaintzen dira).
- b) Ordainketa osagarri (hobariak, plusak, pizgarriak...) etekina ateratzen dieten eta gizonezkoak gehiengoa diren jardueren eremu asko daude, soldata aldeak areagotzen dituztenak.
- c) Sexuaren arabera segregazio profesionalaren pean egonik, gaitasunak aitortzearekin, enpresa motarekin eta industria edo sektore motarekin lotura duten hitzarmen kolektiboak.
- d) Hitzarmen kolektiboen sistemek ahalbidetzen dute soldata-egiturek langile talde desberdinen negoziatzearako indar erlatiboa islatzea (emakumeek negoziatze-ahalmen txikiagoa eta negoziatze mahaietan presentzia urriagoa izanik, haien lorpenak ere txikiagoak izango dira).

118.- Generoak enpleguan duen eragina ebaluatzeko, Emakundek emakumeak eta gizonak lan-merkatuan sartzearekin lotutako zenbait adierazle baliatzen ditu. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Jarduera-tasa.
- b) Pobrezia-tasa.
- c) Langabezia-tasa.
- d) Okupazio-tasa.

119.- Eusko Legebiltzarren Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak egiteko garrantzitsua aitortzen dio hezkuntza-sistemari gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alorrean aurrera egiteko. Horren bidetik, III. tituluaren barruan kapitulu oso bat eskaintzen die hezkuntzaren esku-hartze arloan berdintasuna lortzeko neurriei, hala unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan nola unibertsitate irakaskuntzan. Besteak beste, alderdi orokor hauek aipatzen ditu (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Hezkidetzaren eredia sustatzea eta genero-ikuspegia integratzea.
- b) Genero-ikuspegiari dagokionez gizartearekiko arduratsua den zentroaren eredia sostengatzea.
- c) Curriculumaren edukia.
- d) Hezkidetzako material didaktikoak.

120.- Gizon eta Emakumeen berdintasunerako 4/2005 Legearen 29. artikuluan curriculumaz xedatzen duenaren arabera, Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta jarraian aipatzen diren hezkidetzak helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean (adieraz ezazu erantzun OKERRA):

- a) Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren arabeko aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.
- b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.
- c) Beharrezko ezagutzak sartzeko, neska-mutil ikasleek lan-merkatuan baldintza beretan sartzeko beharraz ohartu daitezzen.
- d) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.